| EZ OHIKO OSOKO BILKURA / PLENO EXTRAORDINARIO<br>2019KO APIRILAREN 29A / 29 DE ABRIL DE 2019 | |
|---|---|
| BERTARATUAK / ASISTENTES | |
| **IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO GENERAL**<br><br>D. Juan Agustín Villafranca Bellido jauna | **ALKATE-UDALBURUA / ALCALDE-PRESIDENTE**<br><br>D. Miguel de los Toyos Nazábal jauna (PSE-EE)<br><br>**ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE**<br><br>D. Alberto Albistegui Zamacola jauna (PSE-EE).<br>D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna (PSE-EE).<br>Dña. Ana Telleria Echeverria andrea (PSE-EE).<br>D. Arcadio Benítez Dávila jauna (PSE-EE).<br>D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna (PSE-EE).<br>D. Jon Iraola Iriondo jauna. (PSE-EE).<br><br>**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES**<br><br>Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea (PSE-EE).<br>Dña. Maria Isabel Larrauri Arriaga andrea (PSE-EE).<br>D. Gorka Errasti Bernedo jauna (Euskal Herria Bildu).<br>Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea (Euskal Herria Bildu).<br>D. Iñaki Penedo Eubieta jauna (Euskal Herria Bildu).<br>Dña. Eva Juez Garmendia andrea (Eibarko EAJ-PNV).<br>D. Jaime López de Guereñu Urisabel jauna (Eibarko EAJ-PNV).<br>Dña. Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea (Eibarko EAJ-PNV).<br>D. Josu Mendicute Rodríguez jauna (Eibarko EAJ-PNV).<br>Dña. Maria elena Ibañez Anucibay andrea (Eibarko EAJ-PNV).<br>Dña. Maria Jesús Aguirre Unceta andrea (Irabazi). |

Eibarko hirian, 2019ko apirilaren 29an, arratsaldeko zazpiak izanik, Udal Osoko bilkura egin zen ez ohiko bileran, udaletxeko Batzar Aretoan, goian aipaturiko jaun-andreek osatua;. Sarasqueta Aramburu, Lamarain Cobo eta Cristobal Churruca jaun-andreek justifikatu dute beren ezin etorria.

En la Ciudad de Eibar, a 29 de abril de 2019 y siendo las diecinueve horas, se reunió en sesión extraordinaria el Pleno Municipal, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/as seño-res/as anteriormente mencionados/as, habiendo justificado su ausencia las Sras. Sarasqueta Aramburu, Lamarain Cobo y el Sr. Cristobal Churruca.

Alkate-udalburu jaunak bilerari hasiera eman dio eta aztertu da honako

El Sr. Alcalde-Presidente declara abierta la sesión y se procede a tratar el siguiente orden

**GAI-ZERRENDA**

**ORDEN DEL DÍA**

**ATAL BAKARRA**

**PUNTO UNICO**

Udal Hauteskundeak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Batzar Nagusietarakoak eta Europar Parlamenturako egingo diren hauteskundeetako Hauteskunde-mahaietako kideak izendatzeko zozketa.

Sorteo para designación de componentes de las Mesas Electorales con ocasión de las próximas Elecciones Locales, a Juntas Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa y al Parlamento Europeo.

Hauteskunde-araubide Orokorraren Lege Organikoko 26. artikuluaren eta Hauteskunde Batzarrak

En cumplimiento del artículo 26 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General e instrucciones de la

emandako jarraibideen arabera, Hauteskunde-mahaietako kideak izendatzeko zozketa egiten da.

Junta Electoral Provincial, se procede al sorteo para designación de componentes de las Mesas Electorales.

Zozketa sistema informatiko baten bidez egiten da eta sistema horrek ausaz zehaztuko ditu Udalerriko Hauteskunde Zentsua osatzen duten hogeita hamazazpi Hauteskunde-mahaietako kideak.

Se procede al sorteo mediante un sistema informático que, de manera aleatoria, determinará a los componentes de las treinta y siete Mesas Electorales que componen el Censo Electoral del Municipio.

Hauteskunde-mahai guztietarako atera diren Mahaiburuen eta Bokalen izenak eta mahai guzti horietako bakoitzaren ordezkoen izenak ere, Eskualdeko Hauteskunde Batzarrari bidaliko zaizkio.

El resultado de asignación de Presidentes y Vocales, así como de sus respectivos suplentes, de todas y cada una de las Mesas Electorales, cuya relación se adjunta al acta, se remitirá a la Junta Electoral de la Zona.

Lan hori arratsaldeko zazpiak eta hogeian amaitu da eta bilera honen helburu bakarra horixe zenez, Alkateak bilerari amaiera eman dio, guzti horretaz, nik, Idazkari naizen honek, fede ematen dudalarik.

Concluyendo esta operación a las diecinueve horas veinte minutos, y siendo el único objeto de esta sesión, el Sr. Alcalde levanta la sesión, de todo lo cual, yo el Secretario, doy fe.

O.I. / Vº Bº

| ALKATE UDALBURUA/<br>EL ALCALDE-PRESIDENTE, | IDAZKARIAK / EL SECRETARIO |
|---|---|
| Miguel de los Toyos Nazabal | Juan Agustín Villafranca Bellido |

<table>
<tr><td colspan="2">

**<u>OHIKO OSOKO BILKURA</u> / <u>PLENO ORDINARIO</u>**

**<u>2019KO APIRILAREN 29A</u> / <u>29 DE ABRIL DE 2019</u>**

</td></tr>
<tr><td colspan="2">BERTARATUAK / ASISTENTES</td></tr>
<tr><td>

**<u>IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO GENERAL</u>**

D. Juan Agustín Villafranca Bellido jauna

**<u>KONTU-HARTZAILEA / INTERVENTOR</u>**

D. David García Castro jauna

</td><td>

**<u>ALKATE-UDALBURUA / ALCALDE-PRESIDENTE</u>**

D. Miguel de los Toyos Nazábal jauna (PSE-EE)

**<u>ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE</u>**

D. Alberto Albistegui Zamacola jauna (PSE-EE).<br>D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna (PSE-EE).<br>Dña. Ana Telleria Echeverria andrea (PSE-EE).<br>D. Arcadio Benítez Dávila jauna (PSE-EE).<br>D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna (PSE-EE).<br>D. Jon Iraola Iriondo jauna. (PSE-EE).

**<u>ZINEGOTZIAK / CONCEJALES</u>**

Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea (PSE-EE).<br>Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea (PSE-EE).<br>Dña. Maria Isabel Larrauri Arriaga andrea (PSE-EE).<br>Dña. Igone Lamarain Cobo andrea (Euskal Herria Bildu).<br>D. Josu Cristobal Churruca jauna (Euskal Herria Bildu).<br>D. Gorka Errasti Bernedo jauna (Euskal Herria Bildu).<br>Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea (Euskal Herria Bildu).<br>D. Iñaki Penedo Eubieta jauna (Euskal Herria Bildu).<br>Dña. Eva Juez Garmendia andrea (Eibarko EAJ-PNV).<br>D. Jaime López de Guereñu Urisabel jauna (Eibarko EAJ-PNV).<br>Dña. Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea (Eibarko EAJ-PNV).<br>D. Josu Mendicute Rodríguez jauna (Eibarko EAJ-PNV).<br>Dña. Maria elena Ibañez Anucibay andrea (Eibarko EAJ-PNV).<br>Dña. María Jesús Aguirre Unceta andrea (Irabazi).

</td></tr>
</table>

Eibarko hirian, 2019ko apirilaren 29an, arratsaldeko zazpi eta erdiak izanik, Udal Osoko bilkura egin zen ohiko bileran, udaletxeko Batzar Aretoan, goian aipaturiko jaun-andreek osatua, Ez da agertu Sarasqueta Aramburu andra eta ezta Cristobal Churruca jauna ere, azken honek justifikatu du bere ezin etorria.

En la Ciudad de Eibar, a 29 de abril de 2019 y siendo las diecinueve horas treinta minutos, se reunió en sesión ordinaria el Pleno Municipal, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/as señores/as anteriormente mencionados/as. No asiste la Sra. Sarasqueta Aramburu ni el Sr. Cristobal Churruca, quien ha justificado su ausencia.

Alkatea Presidente jaunak bilerari hasiera eman dio eta aztertu da honako

El Sr. Alcalde declara abierta la sesión y se procede a tratar el siguiente

**GAI-ZERRENDA**

**ORDEN DEL DÍA**

**1. 2019ko urtarrilaren 28an eta otsailaren 18an Udalbatzak egindako bilkurei dagozkion akta-zirriborroak onartzea.**

**1. Aprobación de los borradores de actas correspondientes a las sesiones de 28 de enero y 18 de febrero de 2019.**

2019ko urtarrilaren 28ko eta otsailaren 18ko osoko bilkurei dagozkion aktak bozkatu ondoren, onartu egin dira aldeko hamabost botoren gehiengoarekin (PSE-EE eta Eibarko EAJ-PNV) eta sei abstentziorekin (Euskal Herria Bildu eta Irabazi).

Sometidas a votación las actas correspondientes a las sesiones plenarias de 28 de enero y 18 de febrero de 2019, quedan aprobadas por mayoría de quince votos a favor (PSE-EE y Eibarko EAJ-PNV) y seis abstenciones (Euskal Herria Bildu e Irabazi).

**2. Alkatetzaren ebazpenen kontu-ematea.**

**Aguirre Unceta andreak** jakin nahi du zergatik dauden hiru ebazpen izen berarekin: aholkularitza juridikoaren zerbitzua kontratatzea.

**Alkate-Udalburu jaunak** erantzun du pertsona nagusiei emandako aholkularitza juridikoaren zerbitzu-kontratazioak direla eta, seguru asko, abokatu ezberdinei dagozkien hiru faktura izango direla.

Azaroaren 28ko, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Araudiari buruzko 2568/1986 Errege Dekretuaren 234. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, alkate-udalburu jaunak azken osoko bilkura arruntetik hona emandako Alkatetzaren ebazpenen edukiaren berri eman du.

Udalkideak jakitun geratzen dira.

**2. Dación de cuentas de Resoluciones de Alcaldía.**

**La Sra. Aguirre Unceta** desea saber por qué razón hay tres Resoluciones con el mismo enunciado: contratación del servicio de asesoramiento jurídico.

El **Sr. Alcalde-Presidente** responde que se trata de las contrataciones del servicio de asesoramiento jurídico a personas mayores y probablemente se tratará de tres facturas correspondientes a diferentes abogados.

De acuerdo con lo previsto en el artículo 234 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales el Sr. Alcalde-Presidente da cuenta del contenido de las Resoluciones de Alcaldía dictadas desde la última sesión plenaria ordinaria.

Los miembros de la Corporación se dan por enterados.

**3. Eibarren euskararen erabilera arautzeko Udal Ordenantza: aldaketa.**

(Une honetan sartu da Idoya Sarasqueta Aramburu andrea bilkurara.)

**Juez Garmendia andreak** nabarmendu du Ordenantza honen aldaketa Euskara Batzorde Aholkulariaren hainbat bileratan aztertu dela eta poza adierazi du bere taldearen proposamen gehienak onartu direlako. Goraipatu egin nahi du egindako lana, eguneratze hau oso beharrezkoa zelako. Eibarko EAJ-PNV udal taldeak ez du gai hau ezer inposatzeko asmoz landu, baizik eta euskarari merezi duen lekua emateko eta haren erabilera bultzatzeko. Era berean, agintaldiaren amaieran egonik, nahiko luke udal ordezkariak teoriatik praktikara pasatzea eta euskara gero eta gehiago erabiltzea.

**Aguirre Unceta andrea** erabat ados dago Eibarko EAJ-PNV udal taldeko bozeramaleak euskararen

**3. Ordenanza Municipal para la regulación del uso del euskera en Eibar. Modificación.**

(En este momento se incorpora a la sesión Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu.)

La **Sra. Juez Garmendia** destaca que la modificación de esta Ordenanza se ha tratado en varias reuniones de la Comisión Asesora de Euskera y muestra su satisfacción porque se han aceptado la mayoría de las propuestas de su grupo. También desea alabar el trabajo realizado puesto que esta actualización era muy necesaria. El grupo municipal Eibarko EAJ-PNV no ha trabajado en este tema con la intención de imponer nada, sino de dar al euskera el lugar que se merece así como promocionar su uso. Así mismo, al encontrarnos al final del mandato desearía que los represented políticos pasaran de la teoría a la práctica y utilizaran el euskara cada vez más.

**La Sra. Aguirre Unceta** se muestra totalmente de acuerdo con lo expresado por la representante del

erabilera normaltasun osoz handitzeko adierazitakoarekin.

grupo municipal Eibarko EAJ-PNV para poder así incrementar el uso del euskara con total normalidad.

**Lamarain Cobo andreak** argitu du Ordenantzak ez duela aldaketa handirik jasotzen, benetako aldaketa hura onartzea izan baitzen, nahiz eta, zoritxarrez, garai hartako Gobernu ordezkariak ez zuen bidea erraztu. Gainera, benetako aldaketa izango da Ordenantza betetzea eta betearaztea, batez ere, haren artikuluetako asko betetzea ardura politikoa dutenen mende dagoelako, eta adibidetzat jarri du auzoetako bileretan nola erabiltzen den euskara. Baina helburu hori lortzeko, beharrezkoa da baita ere behar adinako baliabideak izatea eta horren ardura nagusia oraingo gobernu-taldeak dauka, gutxienez, maiatzaren 26ra arte. Puntu honetan, agintaldiaren amaierara iritsita, eta araudi berrian aurreikusitako neurriak Udalbatza berriak jarri beharko dituenez abian, adierazi nahi du bere taldeak berriztu egiten duela gaiari buruzko konpromisoa eta eskatu du besteek ere gauza bera egitea.

La **Sra. Lamarain Cobo** aclara que la Ordenanza no contiene grandes modificaciones puesto que la modificación realmente profunda fue su aprobación en sí misma, y eso a pesar de que por aquel entonces el Delegado del Gobierno lamentablemente no facilitó el camino. Además, el gran cambio será cumplir y hacer cumplir la Ordenanza, sobre todo porque el cumplimiento de muchos de sus artículos depende de las personas con responsabilidad política y cita como ejemplo el uso del euskara en las reuniones de los barrios. Pero, para alcanzar este objetivo también resulta necesario contar con los recursos suficientes y de ello es responsable principal el actual equipo de gobierno, al menos hasta el próximo 26 de mayo. En este punto, al llegar al final del mandato, y puesto que las medidas previstas en la nueva normativa deberán ser puestas en práctica por la nueva Corporación, desearía renovar el compromiso de su grupo al respecto y solicita que los demás hicieran lo mismo.

**IRIZPENA**

**DICTAMEN**

Eibarren euskararen erabilera arautzeko Udal Ordenantzaren testu aldatuaren berri eman da.

Se da cuenta del texto modificado de la Ordenanza Municipal para la regulación del uso del euskera en Eibar.

Euskara Arloko arduradunaren 2019ko apirilaren 3ko txostenak dioena ikusita,

Visto el informe de la Responsable del Área de Euskera, de 3 de abril de 2019.

Kontuan hartuta 2019ko apirilaren 23ko Erakunde, Lurralde eta Lege-gaietarako Lan Batzordearen aldeko irizpena.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos e Institucionales, de 23 de abril de 2019.

Osoko Bilkurak, aho batez, ondokoa erabaki du:

El Pleno de la Corporación, por unanimidad, adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**Aurrena**.- *Eibarren euskararen erabilera arautzeko Udal Ordenantza*ren aldaketari hasierako onespena ematea, zeinaren testua, hitzez hitz, akta honi eransten zaion.

**Primero**.- Aprobar con carácter inicial la modificación de la Ordenanza Municipal para la regulación del uso del euskera en Eibar, cuyo texto literal se adjunta como anexo a esta acta.

**Bigarrena**.- Espedientea jendaurrean jartzea eta interesdunei, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko, 30 eguneko entzunaldia ematea; horretarako, argitara emango

**Segundo**.- Someter el expediente a información pública y audiencia a los interesados por el plazo de 30 días para la presentación de reclamaciones y sugerencias, mediante publicación de

da akordio hau Udalaren web-atarian, Ediktuen Oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, hain zuzen ere, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluak ezartzen duen bezala.

este acuerdo en el portal web del Ayuntamiento, en el Tablón de Edictos y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, conforme a lo establecido en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

**Hirugarrena**.- Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, besterik gabe, behin betiko onartutzat hartuko litzateke *Eibarren euskararen erabilera arautzeko Udal Ordenantza*ren aldaketa eta testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu. Bestalde, erabaki hau eta Ordenantzaren behin betiko testua Gobernu Azpiordezkaritzari eta Autonomia Erkidegoan dagokion organoari bidaliko zaie, horren berri eduki dezaten eta dagozkien ondorioetarako.

**Tercero**.- En el supuesto de que no se presentaran reclamaciones, la modificación de la Ordenanza Municipal para la regulación del uso del euskera en Eibar se considerará aprobada definitivamente de forma automática, debiendo publicarse el texto íntegro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y darse traslado del acuerdo y del texto definitivo de la Ordenanza a la Subdelegación del Gobierno y al órgano correspondiente de la Comunidad Autónoma, para su conocimiento y efectos oportunos.

**4. Udal laguntza teknikoen zerbitzua arautzeko Erregelamendua.**

**4. Propuesta de Reglamento regulador del servicio de ayudas técnicas municipales.**

**Garate Larrañaga andreak** idazkari jaunari galdetu dio ea Erregelamendu hau onartzeko eragozpen izan daitekeen Plan Arautzailean sartuta ez egotea.

La **Sra. Garate Larrañaga** pregunta al Sr. Secretario si puede representar un impedimento para la aprobación de este Reglamento el hecho de que no esté incluido en el Plan Normativo.

**Idazkari jaunak** jakinarazi du aurreko Bilkura batean onartu zela udal laguntza teknikoen zerbitzu bat sortzea, eta laguntza horiek araudi erregulatzaile bat behar dutela. Hortaz, gai honek ez du zerikusirik Plan Arautzailearekin.

El **Sr. Secretario** informa que en un Pleno anterior se aprobó la creación del servicio de ayudas técnicas municipales que precisa de una normativa reguladora. Por tanto, este asunto no guarda relación con el Plan Normativo.

**Garate Larrañaga andreak** jarraitu du esaten behin zerbitzua sortuta orain erregelamendua onartzea proposatzen dela , eta zehaztu behar direla nola egingo diren behar bereziko pertsonek eska ditzaketen laguntza teknikoak. Zerbitzuak laguntza-produktuak eskaini nahi ditu autonomia pertsonala errazteko eta mendekotasuna, desgaitasuna edo gaixotasun larriak dituzten pertsonen egunerako zereginetan laguntzeko. Zerbitzu honen arrazoia, hain zuzen ere, material teknikoen premian dauden familiei laguntzea da; izan ere, kasu gehienetan, premia hori bat-batean eta berehala etortzen da, eta familiei eragotzi egiten die material hori erosi edo alokatzea, oso garestia izaten delako.

La **Sra. Garate Larrañaga** continúa su intervención afirmando que una vez aprobada la creación del servicio se propone ahora la aprobación del reglamento para determinar cómo se realizarán las ayudas técnicas que las personas con necesidades especiales puedan solicitar. Estamos ante un servicio que trata de proveer productos de apoyo para favorecer la autonomía personal y la accesibilidad en las actividades de la vida diaria a las personas en situación de dependencia, discapacidad o con enfermedades graves. La razón de ser de este servicio es precisamente ayudar a las familias necesitadas de materiales técnicos, ya que esta necesidad en la mayoría de los casos suele sobrevenir de forma inmediata y muy rápida, imposibilitando a las familias su compra o alquiler debido a su alto coste.

Nabarmendu du Eibarko EAJ-PNV udal taldeak konpromisoa duela hau bezalako zerbitzuak behar dituzten

Destaca el compromiso del grupo municipal Eibarko EAJ-PNV para que las personas que necesiten de

pertsonek beren beharrak, eskatu ahala, ase ditzatzen. Garbi du eskari horri erantzuteko behar diren bitarteko guztiak jarri beharko direla eskura, zeren, bestela, ez baititugu sortzen diren espektatibak beteko eta premia duten familiei frustrazioa eragingo diegu.

Laburbilduz, zerbitzu hau kalitatezkoa izatea nahi du, eta denok hartaz harro egon gaitezen; baina batez ere zerbitzuak balio dezala, eta eraginkorra eta azkarra izan dadila.

Horregatik guztiagatik, bere taldearen botoa aldekoa izango da.

servicios como este tengan sus necesidades cubiertas en cuanto lo soliciten. Entiende que para cubrir esta demanda será necesario poner todos los medios porque corremos el riesgo de no cumplir con las expectativas que se generen y generar frustración en estas familias tan necesitadas.

En definitiva, desea que éste sea un servicio de calidad del que todos podamos estar orgullosos por ser altamente solicitado, pero sobre todo servicial, eficaz y ágil.

Por todo ello, el voto de su grupo será favorable.

**IRIZPENA**

Udal laguntza teknikoen zerbitzua arautzeko Erregelamenduaren berri eman da.

Gizartekintza Arloko arduradunaren 2019ko apirilaren 3ko txostenak dioena ikusita,

Kontuan hartuta 2019ko apirilaren 23ko Erakunde, Lurralde eta Lege-gaietarako Lan Batzordearen aldeko irizpena.

Osoko Bilkurak, aho batez,

**DICTAMEN**

Se da cuenta del Reglamento regulador del servicio de ayudas técnicas municipales.

Visto el informe de la Responsable de Servicios Sociales, de 3 de abril de 2019.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos e Institucionales, de 23 de abril de 2019.

El Pleno de la Corporación, por

ondokoa erabaki du:

**ERABAKIA**

**Aurrena**.- Udal laguntza teknikoen zerbitzua arautzen duen Erregelamenduari hasierako onespena ematea, zeinaren testua, hitzez hitz, akta honi eransten zaion.

**Bigarrena**.- Espedientea jendaurrean jartzea eta interesdunei, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko, 30 eguneko entzunaldia ematea; horretarako, akordio hau argitara emango da Udalaren web-atarian, Ediktuen Oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, hain zuzen ere, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluak ezartzen duen bezala.

**Hirugarrena**.- Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, besterik gabe, behin betiko onartutzat hartuko litzateke Udal laguntza teknikoen zerbitzua arautzen duen Erregelamendua eta testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu. Bestalde, erabaki hau eta Erregelamenduaren behin betiko testua Gobernu Azpiordezkaritzari eta Autonomia Erkidegoan dagokion

unanimidad, adopta el siguiente:

**ACUERDO**

**Primero**.- Aprobar con carácter inicial el Reglamento regulador del servicio de ayudas técnicas municipales, cuyo texto literal se adjunta como anexo a esta acta.

**Segundo**.- Someter el expediente a información pública y audiencia a los interesados por el plazo de 30 días para la presentación de reclamaciones y sugerencias, mediante publicación de este acuerdo en el portal web del Ayuntamiento, en el Tablón de Edictos y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, conforme a lo establecido en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

**Tercero**.- En el supuesto de que no se presentaran reclamaciones, el Reglamento regulador del servicio de ayudas técnicas municipales se considerará aprobada definitivamente de forma automática, debiendo publicarse el texto íntegro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y darse traslado del acuerdo y del texto definitivo de la Ordenanza a la Subdelegación del Gobierno y al órgano correspondiente

organoari bidaliko zaie, horren berri eduki dezaten eta dagozkien ondorioetarako.

de la Comunidad Autónoma, para su conocimiento y efectos oportunos.

**5. Eibarko Udaleko langile funtzionario eta kontratupeko langileen ordainsariak igotzea 2019rako.**

**5. Incremento de las retribuciones del personal funcionario y laboral del Ayuntamiento de Eibar para el 2019.**

**Alkate-Udalburu jaunak** azaldu du ordainsarien igoera hau planteatzen duela hori baimentzen duen estatu-araudia onartu delako, eta, udal aurrekontuan horri dagokion kreditua aurreikusita ez dagoenez, aurrekontu-aldaketaren espedientea izapidetu behar dela.

El **Sr. Alcalde-Presidente** explica que plantea este incremento retributivo del personal municipal una vez que se ha aprobado la normativa estatal que lo permite y, al no estar previsto en el presupuesto municipal el crédito correspondiente se debe proceder a la tramitación de un expediente de modificación presupuestaria.

**Mendicute Rodriguez jaunak** esan du bere taldea ados dagoela puntu honekin, baina desadostasuna adierazi du gai hau berandu onartu behar izateagatik udal aurrekontua atzeratu egin delako. Eta, hortaz, hurrengo agintaldiari begira, bere taldeak agintzen du bere esku dagoen guztia egingo duela agintaldia hasi aurretik aurrekontua onartua egon dadin, azken urteotan sortzen ari den egoerak eragozpenak eragiten dizkielako herriko elkarteei, zerbitzu

El **Sr. Mendicute Rodríguez** manifiesta el apoyo de su grupo a la aprobación de este punto aunque desea dejar constancia de su desacuerdo con el hecho de tener que aprobar este asunto con retraso en la aprobación del presupuesto municipal. Y, por tanto, de cara al próximo mandato expresa el compromiso de su grupo para hacer todo lo que esté en su mano y poder contar así con el presupuesto aprobado antes del inicio del ejercicio correspondiente, puesto que la situación que se viene

publikoei, ohiko funtzionamenduari, bai eta langileen lan-baldintzei ere.

produciendo en los últimos años genera contratiempos en las asociaciones de la ciudad, en los servicios públicos, en el funcionamiento ordinario así como en las condiciones laborales del personal.

**IRIZPENA**

Kontuan hartuta Antolaketa eta Langileria saileko jarduneko zuzendari andrearen txostena, eta 2018ko abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege-dekretuaren 3. Bi artikuluarekin bat etorriz, non honako hau adierazten den:

Bi. 2019. urtean, sektore publikoaren zerbitzura lan egiten duten langileen ordainsariak oro har ezingo dira igo 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko ehuneko 2,25 baino gehiago, alderatutako bi epealdietarako homogeneotasunari lotuta, bai langileei eurei dagokienez, eta bai langileriaren antzinatasunari dagokionez ere; horretarako, ez dira kontuan hartuko gizarte-ekintzarako gastuak, zeinak, orokorrean, 2019an ezingo baitira izan 2018ko gastuak baino handiagoak. Horren inguruan, gizarte-ekintza arloko gastuak irabaziak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, egindako lanagatik jasotako lansariekiko

**DICTAMEN**

A la vista del informe de la Directora de Organización y Personal en funciones y de conformidad con lo que establece el artículo 3 dos, del Real Decreto-Ley 24/2018, de 21 de diciembre de 2018 donde indica lo siguiente:

Dos. En el año 2019, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 2,25 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2018, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo y sin considerar a tales efectos los gastos de acción social que, en términos globales, no podrán experimentar ningún incremento en 2019 respecto a los de 2018. A este respecto, se considera que los gastos en concepto de acción social son beneficios, complementos o mejoras

desberdinak, orobat; gizarte-ekintza arloko gastuen helburua aipatutako sektore publikoaren zerbitzurako langileriaren inguruabar pertsonalen ondorioz sortutako premia jakin batzuk asetzea da.

Aurreko guztiaz gain, Barne Produktu Gordinaren (BPGd) igoera 2018ko prezio iraunkorretan ehuneko 2,5ekoa edo handiagoa izango balitz, 2019ko uztailaren 1ari dagokion eraginarekin, beste ehuneko 0,25eko soldata igoera erantsiko litzaioke. Aipatutako ehuneko 2,5ekoa baino txikiagoko hazkundea izanik, igoera hein berean apalagoa izango da, esandako ehuneko 2,5 horren gainean ezarritako murrizketaren arabera. Era horretan, igoera orokorren emaitzak honako hauek izango dira:

BPGd 2,1aren berdina: % 2,30.

BPGd 2,2aren berdina: % 2,35.

BPGd 2,3aren berdina: % 2,40.

BPGd 2,4aren berdina: % 2,45.

Atal honetan xedatuta dagoenaren eraginez, BPGd-ren igoerari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) urtero argitaratzen duen BPGd-ren balio kalkulu aurreratua hartuko da aintzat. INEk BPGd-ren aurrerapena argitaratu ostean eta, aldez aurretik 2018ko martxoaren 9ko enplegu publikoa eta lan baldintzak hobetzeko Erabakiaren

distintos a las contraprestaciones por el trabajo realizado cuya finalidad es satisfacer determinadas necesidades consecuencia de circunstancias personales del citado personal al servicio del sector público.

Además de lo anterior, si el incremento del Producto Interior Bruto (PIB) a precios constantes en 2018 alcanzara o superase el 2,5 por ciento se añadiría, con efectos de 1 de julio de 2019, otro 0,25 por ciento de incremento salarial. Para un crecimiento inferior al 2,5 por ciento señalado, el incremento disminuirá proporcionalmente en función de la reducción que se haya producido sobre dicho 2,5 por ciento, de manera que los incrementos globales resultantes serán:

PIB igual a 2,1: 2,30 %.

PIB igual a 2,2: 2,35 %.

PIB igual a 2,3: 2,40 %.

PIB igual a 2,4: 2,45 %.

A los efectos de lo dispuesto en este apartado, en lo que a incremento del PIB se refiere, se considerará la estimación avance del PIB de cada año publicada por el Instituto Nacional de Estadística (INE). Una vez publicado el avance del PIB por el INE y, previa comunicación a la Comisión de Seguimiento del Acuerdo para la mejora del empleo público y de

Jarraipen Batzordeari jakinarazita, Ministro Kontseiluko Erabakiaren bitartez onetsiko da, egokia baldin bada, igoera aplikatzea. Aipatutako Erabakia autonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Udal eta Probintzien Espainiako Federazioari helaraziko zaie.

Kontuan hartuta 2019ko apirilaren 15eko Langileria sailaren Lan Batzordearen aldeko irizpena.

Osoko Bilkurak, gehiengoz, aldeko hemeretzi botoren gehiengoarekin (PSE-EE, Euskal Herria Bildu eta Eibarko EAJ-PNV) eta Irabazi taldearen abstentziorekin, ondokoa erabaki du:

**ERABAKIA**

**Lehena**.- Onartzea ordainsarien % 2,25eko igoera Eibarko Udaleko langile funtzionarioei eta kontratupeko langileei, oinarri hartuta 2018ko abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege-dekretuaren 3. Bi artikuluan ezarritakoa.

% 2,25eko igoera aplikatzea langile funtzionarioei eta kontratupeko langileei, 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartera.

condiciones de trabajo de 9 de marzo de 2018, mediante Acuerdo del Consejo de Ministros se aprobará, en su caso, la aplicación del incremento. Del citado Acuerdo se dará traslado a las Comunidades Autónomas, a las Ciudades Autónomas y a la Federación Española de Municipios y Provincias.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Trabajo de Personal, de 15 de abril de 2019.

El Pleno de la Corporación, por mayoría de diecinueve votos a favor (PSE-EE, Euskal Herria Bildu, Eibarko EAJ-PNV) y la abstención de Irabazi, adopta el siguiente:

**ACUERDO**

**Primero**.- Aprobar el incremento del 2,25% de las retribuciones del personal funcionario y laboral del Ayuntamiento de Eibar del año 2019 en base a lo establecido en el artículo 3. Dos del Real Decreto Ley 24/2018 de 21 de diciembre de 2018.

Aplicar el incremento del 2,25% a las retribuciones del personal funcionario y laboral desde el 1 de enero de 2019 hasta el 31 de diciembre de 2019.

**Bigarrena**.- Onartzea, aurrekoaz gain, eta 2019ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin, ordainsariaren % 0,25eko igotzea langile funtzionarioei eta kontratupeko langileei, baldin eta Barne Produktu Gordinaren (BPGd) igoera 2018ko prezio iraunkorretan ez balitz % 2,5ekoa edo handiagoa izango, 2018ko abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege-dekretuak ezartzen duen bezala.

**Segundo**.- Aprobar además de lo anterior, a efectos del 1 de julio de 2019, el incremento salarial del 0,25 por ciento al personal funcionario y laboral si el incremento del Producto Interior Bruto (PIB) a precios constantes en 2018 alcanzara o superase el 2,5 por ciento, tal y como establece el Real Decreto Ley 24/2018 de 21 de diciembre de 2018.

**6. 2019ko Udal Aurrekontuko Kreditu Gehigarrien aurreneko espedientea**

**6. Primer expediente de Créditos Adicionales del Presupuesto Municipal 2019.**

**Mendicute Rodríguez jaunak** gogorarazi du espediente honen onarpena agintaldi-hasieratik iragarri dela, eta bere taldeak galdetzen zuenean ea diruzaintza-gerakina Ipuruako komentuko lursailen desjabetzea ordaintzeko erabiliko zen, erantzuna irribarre bat baino ez zen.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** recuerda que la aprobación de este expediente se ha venido anunciando desde el inicio del mandato y cuando su grupo preguntaba si el remanente de tesorería se iba a emplear para el pago de la indemnización por la expropiación de los terrenos del convento de Ipurua únicamente se obtenía una sonrisa por respuesta.

Gaiari helduz, Hirigintzako Aholkulari Juridikoaren txostena aipatu du, non esaten zen, desjabetu beharreko ondasunen eta eskubideen deklarazioa onartu ondoren hamabost eguneko epe bat zegoela balio justuaren inguruko akordio batera

Entrando al fondo del asunto, hace mención al informe del Sr. Asesor Jurídico de Urbanismo, donde se decía que, una vez aprobada la declaración de bienes y derechos a expropiar, existía un plazo de quince días para llegar a un acuerdo sobre el justiprecio.

iristeko. Akordio hori lortuko ez balitz, prozedurari jarraituko litzaioke, baina betiere edozein unetan balio justua adosteko aukera egonik. Hitz horiek kontuan harturik, harrigarria egiten zaio iazko irailaz geroztik espedientearen izapidetzearekin jarraitu ez izana, batez ere kontuan izanik uztailean bere taldeak desjabetu beharreko ondasunen tasazio bat egiteko eskatu zuela. Dena den, nahiz eta ez bete gardentasunaren eta parte-hartzearen estandarrak, Eibarko EAJ-PNV udal taldeak ez du eragiketa hau eragotziko, baina ez du aldeko botoa babestuko.

En el caso de que no se alcanzase ese acuerdo, se continuaría con el procedimiento correspondiente, sin perjuicio de que en cualquier momento se pueda acordar dicho justiprecio. Teniendo en cuenta estas palabras, le sorprende que desde septiembre del pasado año no se haya continuado con la tramitación del expediente, sobre todo teniendo en cuenta la solicitud de una tasación del valor de los bienes a expropiar que su grupo realizó en el mes de julio. De todas maneras, a pesar de que no se han cumplido con los mayores estándares de transparencia y participación, el grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV no va a obstaculizar esta operación aunque tampoco la respaldará con su voto afirmativo.

**Lamarain Cobo andreak** adierazi du bere taldeari ondo iruditzen zaiola herriari lursail horiek itzultzea, bai eta erabilera publikoa ematea ere —kirol erabilera izan liteke—, baina bakoitzak bere proposamenak egin beharko ditu. Nolanahi ere, bere iritziz, erabilera hori zehazteko prozesua ere publikoa izan behar da, hau da, prozesu parte-hartzaile bat egin behar da, kirolaren kontzeptu integratzaile eta osasungarrian oinarrituta. Hala ere, egoera ideala izango litzateke Elizak

La **Sra. Lamarain Cobo** afirma que a su grupo le parece positivo que se devuelvan a la ciudad estos terrenos, así como darle un uso público, que bien pudiera ser deportivo, aunque cada cual deberá realizar sus propuestas. De todas formas, en su opinión el proceso para concretar ese uso también debe ser público, esto es, un proceso participativo basado, en su caso, en un concepto del deporte como una actividad integradora y saludable. De todas formas, la situación ideal sería que la Iglesia devolviera los

lursailak herritarrei itzultzea, bere garaian jaso zituen era berean.

terrenos a la ciudadanía, del mismo modo que los recibió en su momento.

Halaber, proposatu du, ezen, erabilera hori ez bada epe motzean erabakitzen, komentua herritarrentzat zabalik egon beharko litzatekeela, alferrikako espazio bat bihurtzea utzi gabe.

Así mismo, propone que, si en un breve plazo de tiempo no se decide ese uso, el convento debería abrirse a la ciudadanía y no dejar que se convierta en un espacio inútil.

Ondorioz, bere taldea abstenitu egingo da.

En consecuencia, su grupo se abstendrá.

**Aguirre Unceta andreak** zehaztu du, jaso duen informazioaren arabera, komentua salerosketa baten ondorioz eskuratu zela eta berriz ere proposatu du etxerik gabekoentzat izatea. Hortaz, abstenitu egingo dela iragarri du.

La **Sra. Aguirre Unceta** puntualiza que, de acuerdo con la información que ha podido recabar, el convento fue adquirido mediante compraventa y reitera su propuesta de darle un uso de albergue para transeúntes. Por tanto, también anuncia su abstención.

**Alkate-Udalburu jaunak** azpimarratu du lur horiek erostea aukera ezin hobea dela herriarentzat, lagundu egingo lukeelako Kirol Mahaiaren eta Planaren markoan azpiegiturei buruzko premiak definitzeko egiten ari den gogoetan.

El **Sr. Alcalde-Presidente** destaca la magnífica oportunidad que para la ciudad supone la adquisición de estos terrenos, ya que ayudaría enormemente a la reflexión que se está realizando en el marco del Plan y la Mesa del Deporte para definir las necesidades en cuanto a infraestructuras.

Argitu du Udalak inoiz ez duela izan aparteko presarik ondasun horiek eskuratzeko, jabetza bera izan zelako desjabetzea eskatu zuen, legez duen eskubideari helduz; eta, are gehiago,

Aclara que el Ayuntamiento nunca ha tenido especial premura en adquirir estos bienes, ya que ha sido la propiedad la que instó la expropiación de acuerdo con el derecho que

esan du puntu honetaraino ez iristen saiatu zirela.

Eibarko EAJ-PNV udal taldeak eskatu zuen tasazioa dela-eta, ez du garbi ikusten arkitekto andreari laguntzeko asmoz eskatzen ote ziren tasazioak; izan ere, azkenean, enkargatu diren biak bat datoz arkitekto andreak egindakoarekin.

Azken finean, kontua da erantzukizunez jokatzea bai Udalarekin bat herriarekin; izan ere, hala, desblokeatu egiten da egoera bat Eibarko kirol Taldeari lagunduko diona, baina baita auzoko bizilagunei ere, eta horrekin batera, erraztu egingo da kirol-elkarteekiko gogoeta azpiegituren inguruan.

**Mendicute Rodríguez jaunak** gogorarazi du gai honen inguruan Hirigintza Batzorde Aholkularian eztabaidatzen hasi zenean, gobernu-taldeak hitz eman zuela Hirigintza Antolaketa Plan Nagusiaren berrikuspenari ekingo zitzaiola —oraindik ez da egin—, eta bere taldeak planteatu zuen aztertzea ea Udalak izango zuen partzela hori eskuratzeko interesik kirol-ekipamendura bideratzeko.

Horregatik, zehaztu beharra dago zein izango den lursail horien erabilera, are gehiago gardentasunez

legalmente le asiste y afirma que incluso se ha intentado que no se llegara a este punto.

En relación con la tasación que solicitó el grupo municipal Eibarko EAJ-PNV, no ve claro si se pedían con afán de ayudar a la Sra. Arquitecta porque finalmente las dos que se han encargado coinciden básicamente con la suya.

Se trata, pues de un ejercicio de responsabilidad con el Ayuntamiento y con la ciudad porque se desbloquea así una situación que servirá de ayuda a la Sociedad Deportiva Eibar, pero también a los vecinos de la zona, a la par que facilitará la reflexión conjunta con las asociaciones deportivas en torno a las infraestructuras.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** recuerda que, cuando se comenzó a debatir sobre este asunto en la Comisión Asesora de Urbanismo, existía un compromiso del equipo de gobierno de iniciar una revisión del Plan General de Ordenación Urbana, que aún no se ha producido, y su grupo planteó analizar si el Ayuntamiento tendría interés en adquirir dicha parcela para destinarla a equipamiento deportivo.

Por esta razón, resulta obligado concretar cuál será el destino de estos terrenos, máxime cuando la única

jokatu duen entitate bakarra Eibarko Kirol Elkartea izan denean.

institución que ha actuado de forma transparente ha sido la Sociedad Deportiva Eibar.

Halaber, azpimarratu du kontraesana dagoela partzelaren fitxa urbanistikoaren edukiaren (Santaiñes komentuko eremua eraberritzea, erlijio eraikin hori ekipamendu gisa sendotuz eta area horretako gainerako azalera espazio librerako utziz, azken horretan aire zabaleko kirolak praktikatu ahal izan daitezen, gainerako instalazioen osagarri) eta alderdi politikoren baten hauteskunde-propagandaren artean. Eta, era berean, ez ditu prozesu honen berandutzearen arrazoiak ulertzen, bere taldeak 2018ko uztailean eta irailean lursailen tasazio bat eskatu zuelako, gero enkargatu zena.

También destaca la contradicción existente entre el contenido de la ficha urbanística de la parcela (remodelación del convento de Santa Inés consolidando la edificación religiosa como equipamiento y destinando el resto de la superficie del área a espacios libres para la práctica deportiva como complemento del resto de instalaciones) y la propaganda electoral de alguna formación política. Y, del mismo modo, no entiende las razones del retraso de este proceso ya que su grupo solicitó en julio y septiembre de 2018 una tasación de los terrenos, que posteriormente se encargó.

Azkenik, adierazi du ez duela ezer esatekorik Eibarko Kirol Elkarteak lehenbailehen jokatzeko egindako eskariaren gainean, baina garbi laga nahi du atzerapen hori ez dela Eibarko EAJ-PNV udal taldearen erruz gertatu.

Finalmente, manifiesta que no tiene nada que objetar a la demanda de la Sociedad Deportiva Eibar para que se actuase con premura, aunque ese retraso no se ha debido al grupo municipal Eibarko EAJ-PNV.

**Lamarain Cobo andreak** uste du beharrezkoa dela lehenbailehen berriztea Eibar Kirol Elkartearen eta Udalaren arteko hitzarmena, entitate hori udal instalazioetan egiten ari den inbertsioen garrantzia dela-eta.

La **Sra. Lamarain Cobo** considera necesario proceder cuanto antes a la renovación con las formalidades necesarias del convenio suscrito entre la Sociedad Deportiva Eibar y el Ayuntamiento dada la importancia de la inversión que está

llevando a cabo esa entidad en instalaciones municipales.

**Alkate-Udalburu jaunak** uste du garrantzitsuena dela kreditu-aldaketa onartzea eta, gero, hitzarmena, eta esan du ez dela egia gobernu-taldeak gai honen inguruko eztabaida atzeratu duela; horren froga da partzelaren tasazioak udal taldeen esku egon direla Hirigintza sailean martxoaren 5az geroztik, nahiz eta Hirigintza Batzorde Aholkulari baten bilera egiteko bezperan bilera atzeratzea eskatu, dokumentazioa entregatu ez izana leporatuta.

El **Sr. Alcalde-Presidente** cree que lo importante es aprobar la modificación de crédito y, posteriormente, el convenio y afirma que no es cierto que el equipo de gobierno haya retrasado el debate de este asunto; prueba de ello es que las tasaciones de la parcela han estado a disposición de los grupos municipales en el Departamento de Urbanismo desde el 5 de marzo, aunque la víspera de la celebración de una reunión de la Comisión Asesora de Urbanismo se solicitó el aplazamiento de la misma con el argumento de que no se habían entregado.

**IRIZPENA**

2019. jardunaldiko Udal Aurrekontuko partidetan izendatutako kredituak urriak direnez, ondoren zehazten diren kontzeptuengatik egin behar diren gastuak presakotzat eta premiazkotzat hartu dira.

Udal Aurrekontuaren kreditu gehigarrien aurreneko espedientearen inguruan alkateak egin duen proposamena, eta espediente horren

**DICTAMEN**

Al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto Municipal para el Ejercicio 2019; se considera la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que se detallan.

Vistos, la propuesta de Alcaldía sobre el primer expediente de créditos adicionales del Presupuesto Municipal

inguruan kontu-hartzaileak egindako txostena ikusita,

y el informe del Interventor sobre el expediente,

Kontuan hartuta 2019ko apirilaren 17ko Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordearen aldeko irizpena.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio, de 17 de abril de 2019.

Osoko Bilkurak, gehiengoz, aldeko hamar botoren gehiengoarekin (PSE-EE), eta hamar abstentziorekin (Euskal Herria Bildu, Eibarko EAJ-PNV eta Irabazi), ondokoa erabaki du:

El Pleno de la Corporación, por mayoría de diez votos a favor (PSE-EE) y diez abstenciones (Euskal Herria Bildu, Eibarko EAJ-PNV e Irabazi), adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**Aurrena**: Udal Aurrekontuko Kreditu Gehigarrien Aurreneko espedientea ONARTZEA, honako zenbateko hauek dituena:

**Primero**: APROBAR del Primer expediente de Créditos Adicionales del Presupuesto Municipal cifrado en las siguientes cantidades:

<u>LABURPENA KAPITULUKA</u>

I. DIRUAREN NONDIK NORAKOA

| **Kap** | **Izendapena** | **Euroak** |
|---|---|---|
| **8** | **Finantza aktiboak** | **4.032.234,20** |
| **Guztira gehikuntzen adina** | | **4.032.234,20** |

II. KREDITUEN GEHIKUNTZA

<u>RESUMEN POR CAPITULOS</u>

I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| **Capít** | **Denominación** | **Euros** |
|---|---|---|
| **8** | **Activos financieros** | **4.032.234,20** |
| **TOTAL igual a los aumentos** | | **4.032.234,20** |

II. CREDITOS EN AUMENTO

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 6 | Inbertsio errealak | 4.032.234,20 |

**Kredituen Gehikuntza guztira 4.032.234,20**

**Bigarrena**: Kreditu Gehigarrien espediente hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman behar da argitara jendea jakinaren gainean gera dadin.

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| **6** | **Invers. reales** | **4.032.234,20** |

**TOTAL Créditos en aumento 4.032.234,20**

**Segundo**: Asimismo el presente expediente de Créditos Adicionales, deberá publicarse en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para su información pública.

**7. Eibarko Santaiñes kaleko 3 eta 5 zenbakietan kokatutako lursailak desjabetzeko hitzarmena onartzea.**

**7. Aprobación del Convenio expropiatorio de los terrenos situados en los números 3 y 5 de la calle Santaines de Eibar.**

**Mendicute Rodriguez jaunak** gogorarazi du zenbat aldiz eskatu duen bere taldeak lursail horien tasazioak entregatzea, eta aldarrikatu du udal taldeek eskubidea dutela Udalbatzan erabakitzen diren gaien dokumentazioa entregatzeko; informazio jasotzeko eskubidea baliatu besterik ez dute egin.

El **Sr. Mendicute Rodriguez** recuerda las diversas peticiones de entrega de las tasaciones de estos terrenos que su grupo ha realizado y reivindica el derecho de los grupos municipales a que se les entregue la documentación de los asuntos que se someten a la decisión del Pleno; simplemente han ejercido su derecho a la información.

**Alkate-Udalburu jaunak** uste du egokien irizten duten terminologia erabil dezaketela, baina eskatutako dokumentazio hori martxoaren 5az geroztik zegoela taldeen esku; gero, martxoaren 27an, Hirigintza Batzorde

El **Sr. Alcalde-Presidente** considera que cada cual puede utilizar la terminología que considere más oportuna, pero lo cierto es que desde el 5 de marzo estaba a disposición de los grupos la documentación requerida;

Aholkulariaren bilera atzeratzea eskatu zen eta, ondorioz, bere iritziz, nahi zena zen probokatzea bilera hau eta gai hau eztabaidatu behar zeneko ez-ohiko bilkura bertan behera lagatzeko.

posteriormente, el 27 de marzo, se solicitó el aplazamiento de la reunión de la Comisión Asesora de Urbanismo y, en consecuencia, entiende que lo que se buscó era provocar la suspensión de la reunión y del Pleno extraordinario en el que se iba a debatir este asunto.

Nolanahi ere, atzerapen horrek ez dio inolako arazorik sortzen eta adierazi du gobernu-taldeak ez duela inolako presarik mojen komentuko jabetza eskuratzeko, orain arte Kirol Mahaiak ez duelako erabaki zer erabilera emango zaion.

No obstante, este retraso no le genera ningún problema y manifiesta que el equipo de gobierno no tiene ninguna prisa por hacerse con la propiedad del convento de las monjas, porque hasta el momento la Mesa del Deporte no ha decidido el uso que se le va a dar.

**Mendicute Rodriguez jaunak** berretsi du gobernu-taldeak ez duela presarik hitzarmen hau onartzeko eta berriz ere esan du aipatutako tasazioen kopia eskatu dutela behin eta berriz. Halaber, azaldu du Batzordearen deialdia jaso eta hurrengo egunean, jorratu beharreko gaiak prestatzen hasi zirenean, ikusi zutela dokumentazioa falta zela eta bilera bertan behera lagatzeko eskaera erregistratu zutela. Horri dagokionez, esan du beti eskatu dutela deialdiarekin batera beharrezkoa den dokumentazioa ere sartzea; izan ere, bere taldeko kideek dokumentazio hori bakarrik beren lan-ordutegitik kanpora azter dezakete

El **Sr. Mendicute Rodriguez** ratifica que no existe ninguna premura por parte del equipo de gobierno para aprobar este convenio e insiste en que han solicitado insistentemente copia de las tasaciones mencionadas. También explica que al día siguiente de recibir la convocatoria de la Comisión procedieron a preparar los asuntos comprendidos en la misma y, cuando constataron que faltaba documentación registraron la petición de suspensión de dicha reunión. A este respecto, afirma que siempre han solicitado que, junto con la convocatoria, se incluya la documentación necesaria puesto que los miembros de su grupo únicamente pueden analizarla fuera del horario de sus trabajos.

**Aguirre Unceta andreak** ere uste du ez dela erraza proiektu garrantzitsuen dokumentazioa lortzea, hala nola Ardantzako aparkalekuak, Torrekua kaletik, trenbidearen geralekutik, Berdintasunaren Pasealekura doan igogailua edo trenbidearen estalketa-lana Azitaineraino. Hala, urte hauetan zehar, egiaztatu du sarritan xehetasunetan jartzen dela arreta, baina ez dela ideiei buruzko eztabaidarik egiten.

La **Sra. Aguirre Unceta** comparte el planteamiento de que no es fácil conseguir la documentación de proyectos importantes como los estudios de aparcamientos de Ardantza, el ascensor desde calle Torrekua a Berdintasunaren Pasealekua a la altura del apeadero o el cubrimiento de la vía del tren hasta Azitain. Así, a lo largo de estos años ha constatado que en muchas ocasiones se distrae la atención con pequeños detalles y no se debate acerca de las ideas.

**Alkate-Udalburu jaunak** adierazi du Eibarko EAJ-PNV udal taldeko bozeramaleak sinonimotzat jo dituela “entregatzea” eta “eskura jartzea” adierazpideak, Udalbatzarkideek duten informazio-eskubidea bermatzeko tresna gisa. Halaber, kritikatu du aditzera ematea gobernu-taldeak bakarrik duela pertsonal liberaturik, udal talde guztiek dutelako pertsonaren bat udal-eginkizunetan aritzeko dedikazioarekin; eta gogorarazi du bere taldeko kideren batek ere bere lana bateratu behar duela Udalbatza honetako kide izatearekin. Guztiarekin ere, bere ustez garrantzitsuena da herriarentzat positiboa den proiektu bat onartzea.

El **Sr. Alcalde-Presidente** indica que el portavoz del grupo municipal Eibarko EAJ-PNV ha utilizado como sinónimos las expresiones “entregar” y “puesta a disposición” como medios para garantizar el derecho a la información que ostentan los miembros de la Corporación. Igualmente, censura que se dé a entender que únicamente el equipo de gobierno cuenta con personal liberado puesto que todos los grupos municipales cuentan con alguna persona con dedicación a las labores municipales y, recuerda que también alguno de los miembros de su grupo debe compatibilizar su profesión con las responsabilidades de ser miembro de esta Corporación. De todas maneras, considera que lo más importante de todo es que se apruebe un proyecto positivo para la ciudad.

**IRIZPENA**

**DICTAMEN**

Ikusita:

- Obra eta Hirigintza Batzordearen irizpena, Eibarko Santaiñes kaleko 3 eta 5 zenbakietan dauden lursailak desjabetzeko Hitzarmenaren testua onartzea proposatzen duena.

- Kontu-hartzailearen txostena.

- Kreditu gehigarriak aldatzeko espedientea, 4.032.234,20 eurokoa, Eibarko Santaiñes kaleko 3 eta 5 zenbakietan dauden lursailak desjabetzeko Hitzarmena onartu eta formalizatzeko Udalak bere gain hartzen dituen konpromisoei aurre egiteko behar adinako kreditua izan dezan.

Kontuan hartuta 2019ko apirilaren 17ko Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordearen aldeko irizpena.

Osoko Bilkurak, gehiengoz, aldeko hamar botoren gehiengoarekin (PSE-EE), eta hamar abstentziorekin (Euskal Herria Bildu, Eibarko EAJ-PNV eta Irabazi), ondokoa erabaki du:

**ERABAKIA**

Vistos:

- El dictamen de la Comisión de trabajo de Urbanismo y Obras que propone aprobar el texto adjunto propuesto de Convenio expropiatorio de los terrenos situados en los números 3 y 5 de la calle Santaiñes de Eibar.

- El informe del Interventor.

- El expediente de modificación de créditos adicionales por importe de 4.032.234,20 euros para tener crédito suficiente para hacer frente a los compromisos que asume el Ayuntamiento para la aprobación y formalización del Convenio de Colaboración expropiatorio de los terrenos situados en los números 3 y 5 de la calle Santaines de Eibar.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio, de 17 de abril de 2019.

El Pleno de la Corporación, por mayoría de diez votos a favor (PSE-EE) y diez abstenciones (Euskal Herria Bildu, Eibarko EAJ-PNV e Irabazi), adopta el siguiente:

**ACUERDO**

**Aurrena**: Eibarko Santaiñes kaleko 3 eta 5 zenbakietan kokatutako lursailak desjabetzeko Hitzarmenaren testu erantsi proposatua onartzea.

Hitzarmenaren lehenengo estipulazioak hauxe jasotzen du:

- Eibarko Udalak, entitate desjabetzaile gisa, eta Ama Kontzepzionisten Monasterioak, entitate desjabetu gisa, adostasunez ezarri dute partzelak eskuratzeko ordainduko den prezio zuzena, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 24. artikuluan eta bateragarrietan, eta Nahitaezko Desjabetzearen Araudiaren 25. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorriz. Finkatutako prezioa 4.032.234,20 eurokoa da.

**Bigarrena**: Alkate jaunari, Miguel de los Toyos Nazabal jaunari, hitzarmena izenpetzeko baimena ematea.

**Primero**: Aprobar el texto adjunto propuesto de Convenio expropiatorio de los terrenos situados en los números 3 y 5 de la calle Santaiñes de Eibar.

En la estipulación Primera del Convenio se recoge que:

- el Ayuntamiento de Eibar, como entidad expropiante y la entidad Monasterio de las Madres Concepcionistas, como expropiada, han establecido de mutuo acuerdo, el justo precio a abonar por la adquisición de las parcelas, de conformidad con lo dispuesto por el art. 24 de la ley de Expropiación Forzosa y concordantes y en el art. 25 y siguientes del Reglamento de Expropiación Forzosa. El precio fijado es de 4.032.234,20 euros.

**Segundo**: Autorizar al Señor Alcalde, Don Miguel de los Toyos Nazábal para la firma del Convenio.

**8. Toki Erakunde Autonomo hau integratzeko proposamena_**

**Juan Bautista Gisasola Herriko Musika Eskolaren Patronatua Udalean integratzea.**

**8. Propuesta de integración del Organismo Autónomo local:**

**- Patronato de la Escuela Pública de la Música Juan Bautista Gisasola –Juan Bautista Gisasola Musika-Herri Eskolaren Patronatua- en el Ayuntamiento.**

**Errasti Bernedo jaunak** eskatu du, publikoari zor zaion errespetuagatik,

El **Sr. Errasti Bernedo** solicita, por respeto al público, que se haga un

gaiaren mamia eztabaidatu dadila eta ez prozedura.

Gai-zerrendaren puntuari dagokionez, bere taldearentzat pozgarria da entitate hau udal egituran sartzea, bere garaian Euskaltegiarekin eta etxeko laguntzako zerbitzuarekin gertatu zen bezala. Albiste ona da, hala, aukera gehiago egongo delako fiskalizatzeko eta kontrolatzeko; langileen kontuei jarraipen hobea egingo zaie eta aholkularitza hobea emango da.

Baina berri pozgarri honek ez du ezkutatzen Musika Eskolaren egoeraz hausnarketa egin beharra; izan ere, prezio publikoen murrizketa ez da arazo guztien soluzio magikoa.

Testuinguru horretan, Euskal Herria Bildu udal taldeak proposatzen du hurrengo agintaldirako helburutzat Kirol Patronatuaren integrazioa jartzea eta azpikontratazioen gehiegizko kopurua murriztea, hala, orain ematen diren zerbitzuak planifikatu ahal izateko.

**Mendicute Rodriguez jaunak** nabarmendu du Udal honen kudeaketan ohiko jardunbidea dela denbora igarotzen uztea, gero erabakiak aurretik hausnartu barik hartzeko. Hori izan da Musika Eskola Udalean sartzeko prozedura ere,

esfuerzo por debatir sobre el fondo del asunto y no centrarse en el procedimiento.

En lo que al punto del orden del día se refiere, para su grupo es motivo de alegría aprobar la integración de este organismo en la estructura municipal, tal y como ya ocurrió en su momento con el Euskaltegi y el servicio de ayuda a domicilio. Se trata de una buena noticia porque así se dispondrá de mayores posibilidades de fiscalización y control, se llevará a cabo un mejor seguimiento de los asuntos de personal y se dispondrá de un mejor asesoramiento.

Pero esta buena noticia no les hace olvidar la necesidad de reflexionar sobre la situación de la Escuela de Música, puesto que la reducción de los precios públicos no será la solución mágica para todos sus problemas.

En este contexto, desde el grupo municipal de Euskal Herria Bildu plantea como objetivo para el próximo mandato la integración del Patronato de Deporte y finalizar así con el importante nivel de subcontratación para poder publificar muchos de los servicios que ahora se prestan.

El **Sr. Mendicute Rodriguez** destaca como una práctica habitual en la forma de gestionar de este Ayuntamiento es dejar pasar el tiempo y posteriormente tomar una decisión sin reflexionarla previamente. Esta ha sido también la

zeren lantalde bati enkargatu zitzaion hausnarketa bat egitea prezioei buruz eta baita entitate hori erakargarriago eta eraginkorrago egiteko estrategiei buruz, nahiz eta talde hori ez bildu aspalditik.

forma de proceder respecto a la integración de la Escuela de Música, ya que hace un tiempo que se encargó a un grupo de trabajo que reflexionara sobre los precios y las estrategias necesarias para hacer más atractivo y eficiente a este organismo, aunque hace tiempo que este grupo no se reúne.

Bere iritziz, Musika Eskola Udalaren agenda politikotik aparte egon da eta, beraz, bere taldearen konpromisoa da udal egituran integratuz berriz ere bisibilitatea ematea, prezioak are eta gehiago jaistea, langileen baldintzak berrikustea, matrikulazioa areagotzeko neurri berriak hartzea, eta formazio-eskaintza birdefinitzea. Horretarako, premiazkoa da gogoeta bat egitea behar diren estrategiak elkarrekin hartzeko.

A su entender, la Escuela de Música ha estado apartada de la agenda política del Ayuntamiento y, por tanto, el compromiso de su grupo es hacerla de nuevo visible mediante su integración en la estructura municipal, rebajar aún más sus precios, revisar las condiciones del personal y adoptar nuevas medidas que permitan un incremento de la matriculación, así como redefinir la oferta formativa. Para ello, resulta apremiante una reflexión que permita adoptar conjuntamente las estrategias necesarias.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkie entitate horretako kideei lortutako lorpenengatik, hala nola Koru Gaztea.

Por último, desea agradecer a los integrantes de este organismo los logros alcanzados, como en el caso del Coro Juvenil.

**Aguirre Unceta andrea** ere integrazioa egitearen alde dago, baina, bere ustez, hasieratik falta izan da Musika Eskolaren etorkizunari buruzko gogoeta sakon bat, eskola erakargarriago bat egin ahal izateko sormenaren ikuspegi batetik.

La **Sra. Aguirre Unceta** también se muestra partidaria de llevar adelante esta integración, pero desde un principio ha echado de menos una reflexión profunda sobre el futuro de la Escuela de Música y poder así hacerla más atractiva desde un punto de vista creativo.

## IRIZPENA

Honekin batera doazen txostenak dioena aztertuta, Kontu-hartzaile jaunak, Udal Idazkari nagusi jaunak eta Pertsonal eta Antolaketa zuzendari andreak izenpetutakoa; bertan jasotzen diren irizpideekin bat etorrita, Udal honi Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 4. artikuluak bere burua antolatzeko ematen dion eskumenaren arabera eta lege-testu bereko 85. eta 49. artikuluen arabera, eta Udalbatza honek dituen eskumenak aintzat hartuta,

Kontuan hartuta 2019ko apirilaren 17ko Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordearen aldeko irizpena.

Osoko Bilkurak, aho batez, ondokoa erabaki du:

## ERABAKIA

**Aurrena**: Desegitea Juan Bautista Gisasola Herriko Musika Eskolaren Patronatua erakunde autonomoa, 2005eko urriaren 31ko Udal Osoko bilkuraren erabakiz sortua.

## DICTAMEN

Vistos los informes adjuntos suscritos por el Interventor de Fondos, el Secretario General y la Directora de Personal y Organización, compartiendo los criterios recogidos en la misma, en virtud de la potestad de autoorganización de este Ayuntamiento deparada por el artículo 4 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local y conforme a los artículos 85 y 49 del mismo texto legal, así como atribuciones de este Pleno Municipal,

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio, de 17 de abril de 2019.

El Pleno de la Corporación, por unanimidad, adopta el siguiente:

## ACUERDO

**Primero**: La disolución del organismo autónomo Patronato de la Escuela Pública de la Música Juan Bautista Gisasola, cuya creación fue aprobada por acuerdo plenario de 31 de octubre de 2005.

Erakunde horrek eskaintzen zituen zerbitzuak udal honek beronek eskainiko ditu kudeaketa zuzenez, pertsonalitate juridikoko erakunderik izateke.

Era berean, indargabetu egiten dira Juan Bautista Gisasola Herriko Musika Eskolaren Patronatua arautzen duten oraingo estatutuak (2005-11-17ko GAOn argitara emandakoak, 218. zk.an).

Los servicios prestados por dicho organismo seguirán prestándose por el Ayuntamiento en gestión directa, sin organismo personificado.

Se derogan así mismo los estatutos actuales reguladores del Patronato de la Escuela Pública de la Música Juan Bautista Gisasola (BOG Nº 218 de 17-11-2005)

**Bigarrena**: erakunde autonomo horretako beharginak (I. Eranskina) udal plantillan sartzea.

**Segundo**: Integrar a los trabajadores del mencionado organismo autónomo recogidos en el Anexo I en la plantilla municipal.

**Hirugarrena**: aurreko atal horretan adierazitako beharginei dagozkien lanpostuak Udal Lanpostuen Zerrendan sartzea eta Udal Aurrekontuan lanpostu horiek betetzeko behar diren zenbatekoak izendatzea.

**Tercero**: Incorporar en la Relación de Puestos de Trabajo municipal los puestos relativos a los trabajadores indicados en el anterior punto y consignar en el Presupuesto Municipal las cantidades que la cobertura de los mismos precise.

LAUGARRENA: aurreko atal horretan jasotako lanpostu horietakoren bat betetzeko premiarik ez balego, lanpostu horri esleitutako pertsonala Udaleko beste lanpostu bat betetzeko izenda daiteke, betiere titulazioaren eta gaitasunaren printzipioa gordeta.

Berresleipen hori Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 89. artikuluak ezarritakoaren arabera egingo da.

CUARTO: Determinar que caso de que algunos de los puestos recogidos en el punto precedente no sea preciso de cubrir, el personal asignado a dicho puesto podrá ser designado para el desempeño de otro puesto del Ayuntamiento preservándose el principio de titulación y capacidad.

Dicha reasignación se efectuará conforme a lo establecido en el artículo 69 del Estatuto Básico del Empleado Público.

BOSGARRENA: Juan Bautista Gisasola Herriko Musika Eskolaren Patronatuaren zerbitzua eta beharginak Kultura Sailari atxikiko zaizkio.

QUINTO: El servicio y personal del Patronato de la Escuela Pública de la Música Juan Bautista Gisasola será adscrito al Área Cultura.

SEIGARRENA: Udalak bere gain hartzen ditu Juan Bautista Gisasola Herriko Musika Eskolaren Patronatuak sinatutako kontratuetatik datozkion betebeharrak eta eskubideen titulartasuna, 2020ko urtarrilaren batean indarrean zeudenena. Kontratu horiek II. Eranskinean daude jasota.

SEXTO: El Ayuntamiento se subroga en la titularidad de los derechos y obligaciones dimanantes de los contratos suscritos por el Patronato de la Escuela Pública de la Música Juan Bautista Gisasola vigentes al uno de enero de 2020, que figuran en el Anexo II.

ZAZPIGARRENA: Udalak bere gain hartzen du Juan Bautista Gisasola Herriko Musika Eskolaren Patronatuak Datu Babeserako Agentzian deklaratuta dauzkan fitxategien titulartasuna. Fitxategi horiek III. Eranskinean daude jasota.

SÉPTIMO: El Ayuntamiento se subroga en la titularidad de los ficheros de datos de carácter personal que estén declarados ante la Agencia de Protección de Datos por Patronato de la Escuela Pública de la Música Juan Bautista Gisasola y que figuran en el Anexo III.

Erabaki hau Datu Babeserako Euskal Agentziari jakinaraziko zaio.

Se comunicará el presente acuerdo a la Agencia de Protección de Datos.

ZORTZIGARRENA: Juan Bautista Gisasola Herriko Musika Eskolaren Patronatuaren ondasunak —IV. Eranskinean jasotakoak— Udalaren eskuetara pasatuko dira.

OCTAVO: Los bienes de propiedad de Patronato de la Escuela Pública de la Música Juan Bautista Gisasola que figuran en el Anexo IV pasarán a propiedad del Ayuntamiento.

Aldi berean, Udalean integratutako erakunde horren dokumentazioa Udal Artxibo Orokorraren eskuetan utziko da

Así mismo se traspasará la documentación del organismo que se integra al Archivo General del

Artxiboak jaso ahal duenean, aldez aurretik identifikatuta, balioetsita, etiketatuta eta, hala balitz kasua, garbiketa edo expurgoa eginda.

Ayuntamiento conforme pueda recepcionarse la misma previo trabajo de identificación, valoración, etiquetado, y en su caso expurgo.

BEDERATZIGARRENA: erabaki hau jendaurrean uztea eta interesatu guztiei 30 eguneko epeko entzunaldia ematea. Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego, erabakia behin betiko onartuta geratuko da.

NOVENO: Someter el presente acuerdo a información pública y audiencia de los interesados/as por plazo de 30 días. En caso de que no se produzcan reclamaciones o sugerencias, el acuerdo devendrá definitivamente aprobado.

HAMARGARRENA: aurreko erabaki horiek guztiak beren ondorioak izateko datatzat 2020ko urtarrilaren 1a ezartzea.

DÉCIMO: Establecer como fecha a partir de la cual tendrán efectos los precedentes acuerdos  el 1 de enero de 2020.

**9. Oinarriak eta dirulaguntza deialdia, “langabezian edo enplegua hobetu nahian ari diren Eibarko pertsonek prestakuntza-ekintzak egin ditzaten”, onartzeko proposamena.**

**9. Propuesta de aprobación de Convocatoria y Bases de subvenciones “para que las personas desempleadas o en situación de mejora de empleo de Eibar realicen acciones formativas”.**

**Errasti Bernedo jaunak** azpimarratu du Euskal Herria Bildu udal taldearentzat dirulaguntza hauek oso interesgarriak direla, batez ere Eibarko langabetuen profilagatik, % 70 kualifikazio baxukoa eta batere kualifikaziorik gabea baita.  Talde handia da, beraz, eta beharrezkoa da dirulaguntza hauen zabalkunde handiagoa egitea.  Halaber hobekuntza bat izan liteke hurrengo

El **Sr. Errasti Bernedo** destaca que para el grupo municipal Euskal Herria Bildu estas ayudas resultan sumamente interesantes, sobre todo por el perfil de las personas desempleadas de Eibar, con un 70 % con poca o nula cualificación. Se trata, pues, de un colectivo numeroso, por lo que resulta necesario una mayor difusión de estas ayudas. También podría contemplarse como una mejora para

deialdietarako partida handiago bat esleitzea Eibarren eta Debabarrenean dauden enplegu-nitxo edo eskariak betetzera bideratutako formazio-jarduueretarako; era horretara, izan ere, Udalak lagundutako formazioa egiten duen pertsonak aukera gehiago izango luke lan-merkatuan txertatzeko, eta, hori bezain garrantzitsua, gure eskualdean egingo luke.

siguientes convocatorias consignar una mayor dotación para aquellas actividades formativas destinadas a cubrir nichos o demandas de empleo en Eibar y Debabarrena, ya que, de esta manera, la persona que cursa la formación subvencionada por el Ayuntamiento incrementaría sus posibilidades de insertarse en el mercado laboral, pero, lo que es igual de importante, lo haría en nuestra comarca.

Ondorioz, bere taldearen botoa aldekoa izango da.

En consecuencia, el voto de su grupo será favorable.

**López de Guereñu Urisabel jaunak** uste du formazioa ezinbesteko elementua dela gizarteak aurrera egiteko, formazio-planak funtsezkoa baitira edozein enpresaren estrategian; era horretan, nahi duen orok formazioa izan ahalko du nahi duen lanposturako.

El **Sr. López de Guereñu Urisabel** considera que la formación es un elemento imprescindible para que la sociedad avance ya que los planes de formación son una parte fundamental en la estrategia de cualquier empresa; de esta manera, toda persona que lo desee podrá formarse para acceder al puesto de trabajo deseado.

Azken finean, nabarmendu du halako dirulaguntzak oso garrantzitsuak direla eta horregatik Eibarko EAJ-PNV udal taldeak gai honen aldeko botoa emango duela, bai eta gai-zerrendaren 10 eta 11 puntuetan ere.

En definitiva, destaca la importancia de este tipo de subvenciones, razón por la que el grupo municipal Eibarko EAJ-PNV apoyará la aprobación de este punto, así como los puntos 10 y 11 del orden del día.

**Alkate-Udalburu jaunak** azpimarratu du hiru dirulaguntza-lerro proposatzen direla, aurreko urteetan bezala, eta, zoritxarrez, aurten ere

El **Sr. Alcalde-Presidente** resalta que se proponen tres líneas de ayudas como en ejercicios anteriores y que perviven en el tiempo, lamentablemente,

errepikatuko direla, artean ere haien premia dagoelako eta bidea egokia delako formazioa hobetzeko eta enpresak sortu eta ondorengotza laguntzeko. Halaber, pozik azaldu da lortutako adostasunagatik, hala, Udalari aukera ematen diolako garapen ekonomikoaren munduan erabakiak hartzen jarraitzeko.

porque aún hay necesidad de ellas y porque el camino es el adecuado para mejorar la formación y el apoyo a la creación y sucesión de empresas. Igualmente, se felicita por el consenso alcanzado permitiendo así al Ayuntamiento tomar posiciones en esta responsabilidad que ejerce en el mundo del desarrollo económico.

**IRIZPENA**

**DICTAMEN**

Ikusita:

Vistos:

I. Goiburuan adierazitako deialdia onartzeko espedientearen Instruktoreak egin duen proposamena.

II. Kontratazioen eta Diru-laguntzen Unitateko Zuzendariaren aldeko txostena

III. Funtsen Kontu-hartzailearen fiskalizazio txostena.

I. La propuesta de la Instructora del expediente para aprobación de la convocatoria en la cabecera indicada.

II. El informe favorable del Director de la Unidad de Contratación y subvenciones.

III. El Informe de fiscalización del Interventor de Fondos.

Osoko Bilkurak, aho batez, ondokoa erabaki du:

El Pleno de la Corporación, por unanimidad, adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**Aurrena**: ONARTZEA gastua, 35.000,00 eurokoa, “1.1000.480.20.241.00 Langabetuen formakuntzarako dirulaguntzak” izeneko partidari egotziko

**Primero**: APROBAR un gasto por importe de 35.000,00 € con cargo a la partida “1.1000.480.20.241.00 subvención a la formación para desempleados”, del

zaiona. Partida hori Udal honek indarrean duen aurrekontuarena da eta dirulaguntza horiek ematetik sortuko diren gastuei erantzuteko erabiliko da.

vigente presupuesto de la Corporación para atender a los gastos que se deriven de la concesión de las subvenciones.

**Bigarrena**: ONARTZEA dirulaguntzaren deialdia eta Oinarriak, Eibarko Udalak dirulaguntzak eman ditzan “langabezian edo enplegua hobetu nahian ari diren pertsonek prestakuntza-ekintzak egin ditzaten”.

**Segundo**: APROBAR la convocatoria que incorpora las Bases de subvenciones reguladoras para la concesión por parte del Ayuntamiento de Eibar de subvenciones “para las personas desempleadas o en situación de mejora de empleo de Eibar realicen acciones formativas”.

**10. Oinarriak eta dirulaguntza deialdia, “Enpresen ekintzailetza, erakartzea-handitzea eta ondorengotza laguntzeko digu-laguntzak” onartzeko proposamena.**

**10. Propuesta de aprobación de Convocatoria y Bases de “Subvenciones para el apoyo al emprendimiento, atracción-ampliación y sucesión de empresas”.**

**Errasti Bernedo jaunak** uste du beste dirulaguntza arrakastatsu baten aurrean gaudela, bere taldearen babes osoa merezi duena, beharrezkoa delako enpresa-ekimenei laguntzea. Bere iritziz, eta sarritan esan duen bezala, bai Garapen Ekonomikorako Batzorde Aholkularian, bai beste foro batzuetan edo Ekingune elkartearekin egon direnean, enplegu politikak bi hankatan sostengatu behar dira; alegia, pena hartzen du ez direlako apenas existitzen gizarte-

El **Sr. Errasti Bernedo** considera que estamos ante otra subvención exitosa merecedora del apoyo de su grupo por cuanto es necesario respaldar iniciativas emprendedoras. En su opinión, las políticas de empleo deben sustentarse en ambas patas, tal y como lo han expresado, tanto en la Comisión Asesora de Desarrollo Económico, como en otros foros o cuando coinciden con la asociación Ekingune, esto es, lamenta que no existan apenas iniciativas de

ekimeneko enpresak, irabazi ekonomiko pertsonal edo kolektiboa xedetzat izango ez duten enpresak, baizik eta gizarte osoari onura bat dakarkiotenak. Dena den, administrazioak halako enpresak sortzea bultza dezake eta dirulaguntza hauek horretarako bide bat izan daitezke. Halaber, kontuan hartuta Eibarko diagnostiko sozialak herriaren argazki sozioekonomiko bat eskaintzen digula, laguntza gehiago jar litezke sor daitezkeen eta dokumentu horren erronkei erantzungo dieten enpresa sozialentzat. Ondorioz, aldeko botoa emango dute.

empresas de emprendimiento social, empresas cuya meta principal no sea la ganancia económica personal o colectiva, sino la generación de un beneficio para el conjunto de la sociedad. De todas maneras, desde la administración se puede fomentar su creación y estas subvenciones pueden representar una de las vías para ello. Así mismo, teniendo en cuenta que el diagnóstico social de Eibar nos proporciona una fotografía socioeconómica de la ciudad, se podría incluir una mayor ayuda para empresas sociales que se creen y den respuesta a los retos incluidos en ese documento. En consecuencia, votarán afirmativamente.

**Aguirre Unceta andreak** esan du ez duela bereizten zer alde dagoen dirulaguntza ekonomiko hauen eta hurrengo puntuan aurreikusitakoen artean.

La **Sra. Aguirre Unceta** afirma que no alcanza a determinar la diferencia entre este tipo de ayudas económicas y las previstas en el punto siguiente.

**Errasti Bernedo jaunak** azaldu du bigarrenek laneratzeko arazoak dituzten taldeetako pertsonentzat direla eta eztabaida honen inguruko laguntzek, aldiz, eragin sozial bat izan behar dutela, diru-irabaziez gain.

El **Sr. Errasti Bernedo** aclara que las segundas emplean a personas pertenecientes a colectivos con dificultades de inserción laboral, mientras que aquellas sobre las que gira el presente debate deben tener una repercusión social además de las ganancias económicas.

**Alkate-Udalburu jaunak** laneratzeko enpresa baten adibide moduan jarri du une honetan sortzeko

El **Sr. Alcalde-Presidente** pone el ejemplo de una empresa de inserción actualmente en proceso de creación

prozesuan dagoen enpresa bat, iturgintza, igeltserotza eta zurgintza jarduerakoa, berezitasuna izanik bertako langile izango direnek lan-munduan sartzeko zailtasun izatea.

dedicada a la fontanería, albañilería, y carpintería, pero cuyos empleados presentan esa dificultad de penetrar en el mundo laboral.

**Albistegui Zamacola jaunak** zehaztu du laneratzeko enpresen helburu nagusia ez dela enpresa bat sortzea, baizik eta formazioa eskaintzea, hainbat arrazoirengatik, enplegu-munduan sartzeko beren trebezietan duen pertsonei. Beste enpresa motek pertsonalitate juridiko jakin bat dute eta irabazpideak izatea dute xede.

El **Sr. Albistegui Zamacola** precisa que las empresas de inserción social son aquellas cuyo principal objetivo no es la creación de la empresa como tal, sino facilitar una formación a personas, que por determinadas circunstancias, presentan un déficit en sus habilidades para que puedan ingresar en el mundo del empleo. Por su parte, el otro tipo de empresas se refiere a aquellas con una determinada personalidad jurídica y con ánimo de lucro.

Eztabaida honen harira, eskerrak eman nahi dizkie udal talde guztiei arlo honetan elkarlanean jarduteagatik eta egin dituzten ekarpenengatik.

Al hilo de este debate, desea agradecer a todos los grupos municipales su colaboración y aportaciones en este ámbito.

**IRIZPENA**

**DICTAMEN**

Ikusita:

Vistos:

I. Goiburuan adierazitako deialdia onartzeko espedientearen Instruktoreak egin duen proposamena.

I. La propuesta de la Instructora del expediente para aprobación de la convocatoria en la cabecera indicada.

II. Kontratazioen eta Diru-laguntzen Unitateko Zuzendariariaren aldeko txostena

III. Funtsen Kontu-hartzailearen fiskalizazio txostena.

Osoko Bilkurak, aho batez, ondokoa erabaki du:

**ERABAKIA**

**Aurrena**: ONARTZEA gastua, 95.000,00 eurokoa, “1.1000.471.02.241.00 Beste enpresa batzuei” izeneko partidari egotziko zaiona. Partida hori Udal honek indarrean duen aurrekontuarena da eta dirulaguntza horiek ematetik sortuko diren gastuei erantzuteko erabiliko da.

**Bigarrena**: ONARTZEA dirulaguntzaren deialdia eta Oinarriak, Eibarko Udalak “Enpresen ekintzailetza, erakartzea-handitzea eta ondorengotza laguntzeko digu-laguntzak” eman ditzan.

**11. Oinarriak eta dirulaguntza deialdia, “Lantokia Eibarko udalerrian izango duten laneratze-enpresen sorrera sustatzeko dirulaguntzak” onartzeko**

II. El informe favorable del Director de la Unidad de Contratación y subvenciones.

III. El Informe de fiscalización del Interventor de Fondos.

El Pleno de la Corporación, por unanimidad, adopta el siguiente:

**ACUERDO**

**Primero**: APROBAR un gasto por importe de 95.000,00 € con cargo a la partida “1.1000.471.02.241.00 subvención a otras empresas. Ayudas a emprendedores”, del vigente presupuesto de la Corporación para atender a los gastos que se deriven de la concesión de las subvenciones.

**Segundo**: APROBAR la convocatoria que incorpora las Bases de subvenciones reguladoras para la concesión por parte del Ayuntamiento de Eibar de “Subvenciones para el apoyo al emprendimiento, atracción-ampliación y sucesión de empresas”.

**11. Propuesta de aprobación de Convocatoria y Bases de subvenciones “para el fomento a la creación de empresas de inserción con centro de**

**proposamena, zuzenean emateko prozeduraren bitartez eta ebaluazio bakoiztuaren araubidez.**

**Errasti Bernedo jaunak** esan du konfiantza duela Eibar aurrera aterako dutela udal talde guztien laguntzarekin. Dirulaguntza hauei buruz, uste du erantzuna eman diezaieketela Eibarren dauden langabetuei: % 70ek ia kualifikaziorik ez dutenak. Langabe horien artean ere sartzen dira lan-munduan txertatzeko zailtasunak dituzten taldeak, hala nola iraupen luzeko langabeak edo 45 urtetik gorakoak; horregatik uste du era honetako enpresak sortzea irteera bat izan daitekeela hain egoera zailean dauden pertsonentzat. Kontuan hartuta orain arte Gipuzkoan halako hiru enpresa baino ez daudela, Euskal Herria Bildu udal taldeak beti babestuko ditu era horretako ekimenak.

**Aguirre Unceta andreak** nabarmendu du dirulaguntza hauek 20.000 euroko diru-partida bat dutela eta aurreko puntuan aztertutakoek 90.000; eta uste du lehentasun handiagoa eman beharko litzaiokeela laneratzeari onura ekonomikoari baino.

**trabajo en el municipio de Eibar", mediante el procedimiento de concesión directa en régimen de evaluación individualizada.**

El **Sr. Errasti Bernedo** muestra su confianza en sacar adelante Eibar con el concurso de todos los grupos municipales. Respecto a estas subvenciones, considera que pueden dar respuesta a la realidad de personas desempleadas que tenemos Eibar: 70 % de las cuales sin apenas cualificación. Pero, también están dirigidas a colectivos de difícil inserción laboral, como son las personas desempleadas de larga duración o mayores de 45 años, por lo que considera que la creación de este tipo de empresas puede ser una salida para su difícil situación. Teniendo en cuenta que hasta la fecha en Gipuzkoa no existen más que tres empresas de este tipo, el grupo municipal Euskal Herria Bildu siempre apoyará este tipo de iniciativas.

La **Sra. Aguirre Unceta** destaca que estas ayudas cuentan con una dotación de 20.000 euros frente a los 90.000 euros previstos para las tratadas en el punto anterior y considera que habría que primar la inserción social frente al beneficio económico.

**Alkate-Udalburu jaunak** esan du aurrekontu-partida handitzeko konpromisoa dagoela, baldin eta eskaera gehiago badaude.

El **Sr. Alcalde-Presidente** afirma que existe el compromiso de incrementar la partida presupuestaria en el caso de que existan más peticiones.

**IRIZPENA**

**DICTAMEN**

Ikusita:

Vistos:

I. Goiburuan adierazitako deialdia onartzeko espedientearen Instruktoreak egin duen proposamena.

II. Kontratazioen eta Diru-laguntzen Unitateko Zuzendariaren aldeko txostena

III. Funtsen Kontu-hartzailearen fiskalizazio txostena.

I. La propuesta de la Instructora del expediente para aprobación de la convocatoria en la cabecera indicada.

II. El informe favorable del Director de la Unidad de Contratación y subvenciones.

III. El Informe de fiscalización del Interventor de Fondos.

Osoko Bilkurak, aho batez, ondokoa erabaki du:

El Pleno de la Corporación, por unanimidad, adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**Aurrena**: ONARTZEA gastua, 20.000,00 eurokoa, “1.1000.471.11.241.00 Enpreseei. Gizarteratze enplegua sortzea” izeneko partidari egotziko zaiona. Partida hori Udal honek indarrean duen aurrekontuarena da eta dirulaguntza horiek ematetik sortuko diren gastuei erantzuteko erabiliko da.

**Primero**: APROBAR un gasto por importe de 20.000,00 € con cargo a la partida “1.1000.471.11.241.00 A empresas. Creación empleo de inserción”, del vigente presupuesto de la Corporación para atender a los gastos que se deriven de la concesión de las subvenciones.

**Bigarrena**: ONARTZEA dirulaguntzaren deialdia eta Oinarriak, Eibarko Udalak "Lantokia Eibarko udalerrian izango duten laneratze-enpresen sorrera sustatzeko dirulaguntzak" eman ditzan.

**Segundo**: APROBAR la convocatoria que incorpora las Bases de subvenciones reguladoras para la concesión por parte del Ayuntamiento de Eibar de "Subvenciones para el fomento a la creación de empresas de inserción con centro de trabajo en el municipio de Eibar".

**12. "Ipuruako Merkatu Plaza: auzoko gunea" herritar taldeak aurkeztu duen mozioa Ipuruako Merkatu Plaza auzoko elkargune bilakatzeari buruzkoa.**

**12. Moción presentada por "Ipuruako Merkatu Plaza: auzoko gunea" para que la Plaza del Mercado de Ipurua sea un lugar de encuentro de los vecinos del barrio.**

**Lamarain Cobo andreak** azaldu du azken urteotan gobernu-taldeak erdigunean egin dituela inbertsioak, eta, auzoak hiltzen laga dituela poliki-poliki. Hala, leku gutxi daude aisialdirako edo merkataritza-jarduerarako, ondorioz, Euskal Herria Bildu taldeak uste du beharrezkoa dela auzoak biziberritzeko plan integral bat egitea, kulturaren, merkataritzaren eta topaguneen alde lan egingo duena. Horregatik, bere taldeak 2015eko toki-hauteskundeetako programan proposatu zuen "Auzo-Etxeak" saria sortzea, eta hortik eratorri zen "Bittor Sarasketa" proiektu-proposamena.

La **Sra. Lamarain Cobo** manifiesta que en los últimos años el equipo de gobierno ha dirigido las inversiones al centro de la ciudad provocando la muerte lenta de los barrios. Así, nos encontramos con escasos lugares para el esparcimiento o la actividad comercial, lo que conduce al grupo municipal Euskal Herria Bildu a considerar necesario un plan integral de recuperación de los barrios que trabaje la cultura, el comercio local y los lugares de encuentro. Por esta razón, su grupo propuso en el programa electoral para las elecciones locales de 2015 la creación del premio "Auzo-Etxeak", que devino en la

propuesta para el premio "Bittor Sarasketa".

Zentzu horretan, erabat ados dago mozioan planteatzen den ideiarekin, eta iragarri du aldeko botoa emango duela; halaber, eskertu eta txalotu egiten du egin duten lana.

En este sentido, se muestran totalmente de acuerdo con la propuesta que se plantea en la moción y anuncia el voto favorable, al tiempo que agradece y aplaude el trabajo realizado.

Azpimarratu du orobat konpromiso hau hurrengo agintaldian berriztu beharko dela, eta pozten dela gainerako taldeak halako proposamenekin bat etortzea, Euskal Herria Bilduk azken urteetan egin duen bezala.

Así mismo, destaca que este compromiso deberá renovarse en el siguiente mandato y se alegra por que el resto de grupos se sumen a propuestas de este tipo, tal y como el grupo municipal Euskal Herria Bildu ha venido haciendo en los últimos años.

**Mendicute Rodríguez jaunak** anakronismotzat jo du, gobernu irekiaren garaian, mozio hau proposatu dutenek aldez aurretik ezin azaltzea zein den beren jarrera udal taldeei, Bilboko Udalean, besteak beste, egiten duten bezala. Egoera horrek behartu egiten du udal araudia aldatzera hurrengo agintaldian zehar; hala, saihestu egingo da hitz egin ahal izateko bilkura amaitu arte itxaron behar izatea.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** considera un anacronismo que, en la época del gobierno abierto, las personas proponentes de esta moción no puedan fijar su postura con anterioridad a los grupos municipales, tal y como ocurre, entre otros, en el Ayuntamiento de Bilbao. Esta situación obliga a modificar el reglamento municipal a lo largo del próximo mandato, evitando así que haya que esperar a la finalización de la sesión para que este tipo de intervenciones se produzcan.

Hori esanda, eskerrak eta zorionak eman nahi dizkio proiektua idatzi duen taldeari, eta harrotasuna erakutsi gure herrian halako pertsona gogotsuak egoteagatik, eta beren auzoa hobetzeko egitasmo bat egiteko gaitasuna izateagatik.

Dicho lo cual, desea agradecer y felicitar al grupo que ha redactado este proyecto y muestra su orgullo por contar en nuestra ciudad con personas tan entusiastas y con la capacidad necesaria para elaborar un proyecto de mejora de su barrio.

Halaber, adierazi nahi du Udalak bere egin beharko lukeela proiektu hau, agian ez gauzatzeko konpromisoa hartzeko punturaino, baina bai, gutxienez, bideragarritasuna aztertzeko. Horren harira, bere taldeak egin zuen proposamen hori Bozeramale Batzarrean, eta planteatu zuen 15.000 euroko partida bat esleitzeko aukera, antzeko proiektuen bideragarritasuna aztertzeko.

Aurkeztutako proiektua aztertuta, adierazi du bere taldeak konpromisoa hartzen duela antzeko ideiak beste auzo batzuetan bultzatzeko, eta nahi luke proiektu hau pilotu izatea eta kontuan hartzea, ez soilik aisialdiko kontuak, baita beste gai batzuk ere, hala nola elkarbizitza, kontsumo arduratsua, kultura, edo langabezia, alegia, aztertzea zer aukera eskaintzen diren auzo bakoitzerako.

Atal berezi bat eskaintzen dio antzeko proiektua izan beharko lukeenari, alegia, Txontako auzoari; proiektu horrek erabiltzen ez diren tailerrak berrerabiltzea jaso beharko luke, esaterako, “indoor skate” parke bat eraikitzeko, gunearen biziberritzerako tresna gisa, eta, ez oraingo alternatiba, alegia eraispen orokorra eta etxebizitza berriak eraikitzea.

Ipuruako auzoko proiektura itzuliz, ez du uste auzoaren beharra etxebizitza berriak egitea denik dorreen ondoan,

También desea manifestar que el Ayuntamiento debería hacer suyo este proyecto, quizás no tanto como para comprometerse a materializarlo, pero sí, al menos, estudiar su viabilidad. En este sentido, su grupo ya formuló esta propuesta en la Junta de Portavoces en relación con la posibilidad de dotar de una partida de 15.000 euros para el análisis de la viabilidad de proyectos similares.

Desde el estudio del proyecto presentado, expresa el compromiso de su grupo para apoyar e impulsar ideas similares en otros barrios y desearía que se convirtiera en un proyecto piloto que tuviera en cuenta, no sólo las implicaciones en el tiempo libre, sino también en otras materias como la convivencia, el consumo responsable, la cultura, o el empleo, es decir, analizar qué posibilidades se ofrecen para cada barrio.

Dedica un apartado especial al que debiera ser un proyecto similar para el barrio de Txonta, proyecto que debería contemplar la reutilización de los talleres en desuso para la construcción, por ejemplo, de un parque de “indoor skate”, como instrumento de regeneración de la zona, frente a la alternativa del derribo generalizado y la edificación de nuevas viviendas.

Volviendo al proyecto para el barrio de Ipurua, no cree que la necesidad pase por la construcción de nuevas viviendas

baizik eta ekipamendu publikoak eskura jartzea /gaitzea.

Esandako guztia dela-eta, bere taldeak alde bozkatuko duela iragarri du.

junto a las torres existentes, sino más bien la habilitación de equipamientos públicos.

En coherencia con todo lo dicho, anuncia el voto favorable de su grupo.

**Aguirre Unceta andreak** babestu egiten du proiektua eta, uko egin, beraz, bere hasierako asmoari, alegia, aterpea han egiteko proiektuari; izan ere, oraingo neguko dispositiboa ez zaio, ez humanoa, ez duina iruditzen. Baina Ipuruako espazio honi buruz sortzen zaion zalantza bakarra da kudeatzeko modua (langile arduradunak, ordutegiak...) eta zer aurrekontu izango duen martxan jartzeko.

La **Sra. Aguirre Unceta** apoya el proyecto y reitera su rechazo a que en el antiguo mercado de Ipurua se ubique un albergue para transeúntes puesto que no lo considera humano ni digno. Pero, la única duda que se le suscita es la forma de gestionar ese espacio (personal responsable, horarios…) y el presupuesto estimado para su puesta en marcha.

**Alkate-Udalburu jaunak** onartu du batzuetan Udal bilkurako eztabaidetan egoera deserosoak sortzen direla, esterako, mozio hau egin duen taldeak ezin parte hartzea bere egitasmoa azaltzeko. Horregatik, bera ere ados dago araudi organikoa aldatzeko ideiarekin. Halaber, bat dator Irabazi udal taldearen bozeramalearekin: egia da hainbat kontu daudela zehazteko, baina egia da ere proposamen hau dela aurkeztu den herri-ekimeneko ariketarik osoena. Hala, konpromisoa hartzen du, agintaldiaren azken zati honetan, gehienez ere 15.000 euroko bideragarritasun-azterketa bat egiteko, eta adierazi du mozioak PSE-EE udal taldearen babesa izango duela.

El **Sr. Alcalde-Presidente** reconoce que en ocasiones se producen en los debates del Pleno situaciones incómodas, tales como que el colectivo proponente de esta moción no pueda intervenir para explicar su proyecto. Por esta razón, comparte la idea de modificar el reglamento orgánico. También coincide con la portavoz del grupo municipal Irabazi en que aún quedan diversos asuntos por concretar, pero también es cierto que esta propuesta es uno de los ejercicios de iniciativa ciudadana más completos que se han presentado. Así, se compromete en lo que queda de mandato a contratar un estudio de viabilidad por importe máximo de 15.000 euros y comunica el respaldo a la moción del grupo municipal del PSE-EE.

**Mendicute Rodríguez jauna** pozik azaldu da proiektu honek eragin duen adostasunagatik, auzo horretan ekipamendu publiko baten alde egiten duelako, eta ez etxebizitzen alde.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** expresa su satisfacción por la unanimidad que ha concitado este proyecto ya que supone apostar por un equipamiento público a este espacio y desechar la idea de viviendas.

**Lamarain Cobo andreak** esan du Alkate-Udalburu jaunak aipatzen dituen egoera deseroso horiek konpon zitezkeela Parte Hartzeari buruzko Udal Ordenantza onartuta. Halaber, harritu egiten da bere taldearen ahalmen pedagogikoagatik; izan ere, 2015ean "Auzo-Etxeak" sariak eta Bittor Sarasketako proiektua proposatu zituztenean, oztopo pila bat izan zituzten. Dena den, pozik dago ekimen hau aurrera ateratzeagatik.

La **Sra. Lamarain Cobo** comenta que se podía haber solucionado ese tipo de situaciones incómodas a las que se ha referido el Sr. Alcalde-Presidente mediante la aprobación de la Ordenanza municipal de Participación. Al mismo tiempo, se sorprende por la capacidad pedagógica de su grupo, puesto que cuando en 2015 propusieron los premios "Auzo-Etxeak" y el proyecto de Bittor Sarasketa se encontraron con infinidad de obstáculos. De todas formas, se felicita por el hecho de que esta iniciativa prospere.

**Alkate-Udalburu jaunak** erantzun du bi proiektu erabat desberdinak direla, eraikinen morfologia eta titulartasuna oso desberdinak direlako. Hala, uste du oso normala dela egitasmo bat lantzen ari denean proposamen ezberdinak sortzea eta, gobernu-taldearen kasuan, proposamena zen zuzkidura-apartamentuak egokitzea. Nolanahi ere, mozio honetako proiektua aztertuta, uste du alternatiba hobea dela auzoarentzat, bere papera entzutea baita eta ez

El **Sr. Alcalde-Presidente** responde que se trata de dos proyectos completamente diferentes, con una morfología de los edificios y una titularidad completamente distintas. Así, considera absolutamente normal que cuando se está trabajando un proyecto surjan diferentes propuestas y, en el caso del equipo de gobierno, la suya era habilitar apartamentos dotacionales. No obstante, una vez analizado el proyecto al que se refiere esta moción entiende que

inposatzea; hala ere, horrek ez du kentzen alderdi batzuk zehaztu behar izatea.

representa una alternativa mejor para el barrio, ya que su papel es escuchar y no imponer, sin perjuicio de que haya que concretar algunos aspectos.

**MOZIOA**

**MOCIÓN**

“Ipuruako Merkatu Plaza: auzoko gunea” herritar taldeak ondoko mozioa aurkezten du Udalbatzak hurrengo udal-osoko bilkuran eztabaida dezan:

El grupo “Ipuruako Merkatu Plaza: auzoko gunea” presenta la siguiente moción para que sea debatida por la Corporación Municipal en el próximo pleno municipal:

ZIOA

Herrian eta Ipuruan ez dago ume txikiak (0-6) egoteko toki babesturik eta moldaturik: parkeak badaude, baina eguraldi txarra eta hotza denean ezin dira erabili. Gainera, ditugun parkeek psikomotrizitatea eta sozializazioa lantzeko egokiak izan daitezkeen arren, beste espacio mota batzuk bultzatzea beharrezkoa iruditzen zaigu, arreta, sormena, musika, emozioen kudeaketa etab. lantzeko.

Bestalde, erabilera anitza eta intergenerazionala oso aberasgarria dela uste dugu, horregatik Ipuruako merkatua izandakorako adin eta funtzio desberdinak biltzen dituen zentru edo elkargune bat proposatzen dugu. Hiri zentruak edo zentru zibiko delakoek cultura eta behar sozialak betetzen dituen baliabideak

MOTIVACIÓN

No hay en Ipurua ni en el pueblo lugares protegidos y adaptados para niños de edad temprana (0-6): hay parques, pero cuando hace frío y mal tiempo no se pueden utilizar. Además, aunque los parques que tenemos puedan ser adecuados para trabajar la psicomotricidad y la socialización, nos parece necesario impulsar otra clase de espacios, en los que los niños puedan desarrollar la atención, la creatividad, la música, la gestión de las emociones etc.

Por otra parte, creemos que el uso intergeneracional es muy enriquecedor, y por eso proponemos que el antiguo Mercado de Ipurua sea un centro o punta de encuentro que reúna diferentes edades y funciones. Los centros de encuentro o los denominados centros cívicos pueden ofrecer recursos para

eskeini ditzake auzoz-auzo, Eibarko orografía kontuan hartuz, irisgarritasuna hobetzeko eta herri partaidetza areagotzeko. Horretarako hiri-eraikuntza oinarrizkoak direla uste dugu. Izaera publikoa kontuan hartuz, elkarbanatzea, eta auzoari bizitasuna emateko zerbitzu pribatuez gain.

cubrir las necesidades sociales y culturales de cada barrio, y teniendo en cuenta la orografía de Eibar, estos nuevos centros podrían mejorar la accesibilidad a los mencionados recursos culturales y sociales e incrementar la participación popular. Por ello, creemos que los centros cívicos son clave. El carácter público de estos centros daría vitalidad, fomentaría la interactuación y a su vez, complementarían los servicios privados existentes.

MOZIOA

MOCIÓN

Hau guztia aintzat hartuz, Eibarko Udalak hurrengo neurriak adosten ditu.

Teniendo en cuenta todo esto, el Ayuntamiento de Eibar acuerda las medidas siguientes:

Ipuruako Merkatu Plaza auzoko elkargune bilakatzea.

“Ipuruako Merkatu Plaza: auzoko gunea” herritar taldeak egindako inkestaren emaitzak kontutan hartuta, Eibarko Udalak eraikin hau birgaitzeko eta lehenengo puntuan erabakitako erabilera emateko bideragarritasun plana egitea.

Que la Plaza de Mercado de Ipurua sea un centro de encuentro para el barrio.

Teniendo en cuenta los resultados de la encuesta que el grupo “Ipuruako Merkatu Plaza: auzoko gunea” ha presentado, el Ayuntamiento de Eibar llevará a cabo un plan de viabilidad para rehabilitar este edificio y convertirlo en punto de encuentro del barrio.

Inkestaren emaitzak: https://www.scribd.com/document/406359275/Ipuruako-Merkatu-Plaza-Auzoko-Gunerako-Inkestaren-Emaitzak

Resultados de la encuesta: https://www.scribd.com/document/406359275/Ipuruako-Merkatu-Plaza-Auzoko-Gunerako-Inkesta-Emaitzak

Eraikinaren birgaitze proiektua Aurrera eramateko lizitazio prosezua martxan jartze. Baldintza agirian, herritar taldeak egindako txoatenean proposatutakoak kontuan hartuz.

Txostena:
https://www.sribd.com/document/396674458/Ipuruako-Merkatu-Plaza-Auzoko-Gunea-20190102-Txostena

El Ayuntamiento de Eibar pondrá en marcha el proceso de licitación para rehabilitar este edificio. En el pliego de condiciones, se tendrá en cuenta las propuestas realizadas en el informe elaborado por el grupo:

Informe:
https://www.scribd.com/document/3936674458/Ipuruako-Merkatu-Plaza-Auzoko-Gunea-20190102-Txostena

"Ipuruako Merkatu Plaza: auzoko gunea"k aureztu duen mozioa bozkatuta, Udal Osoko bilkurak, aho batez, mozioa onartzea erabaki du.

Sometida a votación la moción presentada por "Ipuruako Merkatu Plaza: auzoko gunea", el Pleno Municipal por unanimidad, acuerda aprobar dicha moción.

**13. EAJ-PNVk aurkeztu duen mozioa ikastetxeetako patioak irekitzeko.**

**13. Moción presentada por el Grupo EAJ-PNV sobre apertura de patios de colegios.**

**Alkate-Udalburu jaunak** azaldu du PSE-EE udal taldeak mozio alternatibo bat aurkeztu duela, non adierazten den irekitze hori egiten dela, neurri batean, eta hala jarraitu behar dela. Halaber, proposatzen du Gazteria sailean ordutegia gehiago zabaltzea aztertzea eta adostu daitezela ikastetxeekin auzotarrei eragozpenik ez eragiteko neurriak. Dena den, iragarri du erretiratu egingo duela

El **Sr. Alcalde-Presidente** expone que el grupo municipal PSE-EE ha presentado una moción alternativa en la que se indica que esa apertura ya se lleva a cabo parcialmente y que hay que continuar con ella. Así mismo, se propone que desde el Área de Juventud se estudie su posible ampliación y se consensue con los centros escolares las medidas necesarias para evitar molestias al vecindario. No obstante, anuncia la

mozioa, udal taldeek ez dutelako testua eskura izan bilkura hau egin aurretik.

retirada de la misma al no haber dispuesto los grupos municipales del texto con anterioridad a la celebración de este Pleno.

**Mendicute Rodríguez jaunak** eskertu egin du PSE-EE udal taldeak mozioa erretiratzea gainerako taldeek hura azter dezaten.

Bere taldeak aurkeztutako mozioaren edukia dela-eta, zehaztu du bigarren puntuan aipatzen dela talde sozialistaren planteamendua bizilagunei eragozpenak ez sortzeko neurriak hartzeari buruz. Sozialisten proposamena da ikastetxeak urtean 5 egunez zabaltzea 4 ordutan; gutxi iruditzen zaio, eta uste du Eibarren leku gutxi daudela neska-mutikoak elkarbizitza-arazorik sortzeke jolasean ibiltzeko. Ermuko San Lorenzo Ikastetxeko patioaren esperientzia imitatu liteke; han urteko egun guztietan erabiltzen da erdiko plaza inolako arazorik gabe. Horretarako, ez du uste beharrezkoa denik dinamizatzaile bat kontratatzea.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** agradece la voluntad del grupo municipal del PSE-EE al retirar su moción para que los demás grupos puedan analizarla.

En cuanto al contenido de la presentada por su grupo, precisa que el segundo punto ampara el planteamiento del grupo mayoritario de adoptar las medidas necesarias que eviten molestias a terceros. Su propuesta consiste simplemente en abrir los patios de los colegios públicos 5 días al año durante 4 horas, debido a su infrautilización y por los escasos espacios libres con que cuenta Eibar para que las niñas y niños puedan jugar sin causar problemas de convivencia. Se trataría de imitar la experiencia del patio del Colegio de San Lorenzo de Ermua, que se utiliza como plaza central del barrio durante todos los días del año sin problema alguno. Para que ello sea posible no cree que sea necesaria la contratación de una persona que actue como dinamizadora.

**Lamarain Cobo andreak,** aurreko puntuaren ildotik, uste du garrantzitsua dela ikastetxeetako patioak zabalik edukitzea auzoak biziberritzeko, familiak beren auzoan geratzea ahalbidetuz.

La **Sra. Lamarain Cobo**, en consonancia con el punto anterior, considera importante mantener abiertos los patios de los centros escolares con el fin de revitalizar los barrios, permitiendo

que las familias puedan hacer vida en su entorno.

Baina, behin mozioa ezagututa, harridura adierazi du; izan ere, duela lau urte Euskal Herria Bildu udal taldeak zuzenketa berdina aurkeztu zuen aurrekontuaren negoziazio-prozesuan, eta bi urte igaro behar izan ziren harik eta gobernu-taldeak ikastetxeak zabaltzea onartu arte. Horregatik, zalantza sortzen zaio: edo Eibarko EAJ-PNV udal taldeak ez daki instalazio horiek astebururo zabaltzen direla apiriletik urrira. Edo, bestela, uste badute aldi hori ez dela nahikoa, galdetzen du zergatik ez duten gehiagotan zabaltzea proposatzen.

Pero, una vez conocida la moción, expresa su sorpresa ya que hace cuatro años el grupo municipal de Euskal Herria Bildu presentó una enmienda idéntica durante el proceso de negociación presupuestaria y tuvieron que transcurrir dos años para que el equipo de gobierno aceptase abrir los colegios. Por esta razón, le surge la duda de si el grupo municipal Eibarko EAJ-PNV no conoce que estas instalaciones se abren todos los fines de semana durante los meses de abril a octubre. En caso contrario, si consideran que ese período no es suficiente, se pregunta por qué razón no proponen ampliarlo.

Halaber, gogorarazi du gai hau Kultura Batzorde Aholkularian aztertzen dela eta, beraz, hura dela organo egokia horretaz eztabaidatzeko.

Así mismo, recuerda que este tema es objeto de seguimiento en la Comisión Asesora de Cultura y, por tanto, es el órgano adecuado para debatir sobre él.

Guztiarekin ere, bere taldeak beti egin duenez apustu ikastetxeak zabaltzearen alde, mozioa babestuko dute, nahiz eta ez ulertu oso ondo zer proposatzen den.

Con todo, ya que su grupo ha apostado siempre por la apertura de los centros escolares, apoyarán la moción aunque sin comprender del todo el motivo de lo que se propone.

**Aguirre Unceta andreak** ez daki ebaluatu den zabalik egon diren hiru ikastetxe-patioen esperientzia. Nahiz eta mozioaren proposamena zuzena iruditu, eragozpen batzuk antzematen ditu, hala nola zaintzako langileen premia edo

La **Sra. Aguirre Unceta** desconoce si se ha evaluado la experiencia de la apertura de tres patios escolares. Así, aunque le parece correcta la propuesta de la moción, observa algunos inconvenientes, tales como la

espazioaren garbiketa. Hori dela-eta, galdetzen du ez litzatekeen egokiagoa izango hiru ikastetxe horien ordutegia zabaltzea; dena den, berak beti babestuko du herritarrek espazio publikoak erabiltzea.

necesidad de personal de vigilancia o la limpieza del espacio. Por ello, se pregunta si no sería más adecuado ampliar el horario de los tres recintos actuales, aunque siempre apoyará el uso de los espacios públicos por la ciudadanía.

**Alkate-Udalburu jaunak** esan du gaur egun ikastetxeak zabalik egoten direla astelehenetik ostiralera 20:00ak arte eta uda-sasoian larunbatetan ere zabaltzen direla, aurreko urteetan egin den bezala. Bere garaian, itxi egin ziren, ikastetxeetako arduradunek kalteak antzeman zituztelako instalazioetan; bera berriz ere irekitzeko aukera aztertzearen alde dago, bere taldeak aurkeztutako mozio alternatiboak planteatzen zuen bezala. Hala ere, ez du oztoporik ikusten Eibarko EAJ-PNV udal taldearen mozioa babesteko.

El **Sr. Alcalde-Presidente** afirma que actualmente los patios escolares permanecen abiertos de lunes a viernes hasta las 20:00 horas y durante el período estival también se abren los sábados, tal y como se ha hecho en años anteriores. En su momento, se cerraron debido a que los responsables de los centros escolares constataron desperfectos en las instalaciones, aunque se muestra partidario de analizar las posibilidades de reapertura, tal y como planteaba la moción alternativa presentada por su grupo. Aun así, no ve mayor inconveniente en apoyar la del grupo municipal Eibarko EAJ-PNV.

**Lamarain Cobo andreak** gogorarazi du Gazteria teknikariak Kultura Batzorde Aholkularian azaldu zuela ikastetxeak inolako arazorik gabe zabaltzen zirela aipatu diren hilabeteetan.

La **Sra. Lamarain Cobo** recuerda que el Técnico de Juventud explicó en la Comisión Asesora de Cultura que los patios escolares se abrían sin ningún tipo de inconveniente durante los meses que se han indicado.

**MOZIOA**

**MOCIÓN**

Eibarko EAJ-PNV udal taldeak honako mozio hau aurkezten du, eskoletako jolastokiak irekitzeko.

El grupo municipal EAJ-PNV de Eibar presenta esta moción relativa a la apertura de los patios de las escuelas.

ZIOA

MOTIVOS

Eibarren dagoen parke eta aisialdirako gune eskasiaren aurrean, Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren eskutik bestelako konponbideak eman bitartean, funtsezkoa da haur, nerabe eta gazteen aisialdirako guneak lortzea, gune horietan kirola eta, oro har, jarduera fisikoa errazteko, araututako lehiaketetatik kanpoko aisialdi osasuntsuari bide emanez. Baloi-jolasak debekatuta daude herriko plazetan, eta ondorioz, kirolguneak erabiltzeko premia sortzen da.

Ante la carencia de parques y espacios de ocio existente en Eibar, y hasta que se den otras soluciones en el Plan General de Ordenación Urbana, es fundamental conseguir esos espacios para niños/as, adolescentes y jóvenes, facilitándoles la práctica del deporte y la actividad física en general, favoreciendo un ocio saludable más allá de las competiciones regladas. Los juegos de balón están prohibidos en las plazas y, por tanto, surge la necesidad de utilizar espacios deportivos.

Hala ere, badaude erabilera optimizatzeko aukera duten espazioak herrigunean bertan. Ikastetxeetan, eskolako zein eskolaz kanpoko ekintzetako ordutegiz kanpo, erabilgarri izan litezkeen espazioak daude. Urtean hiru ikastetxeren jolastokiak bost egun lau orduz irekitzeko egitasmoa abian dago, horretarako zaintza zerbitzua kontratatuz.

De todas formas, en el propio espacio urbano existen unos espacios con la posibilidad de optimizar su uso. En las escuelas hay espacios que se pueden utilizar, fuera de los horarios escolares o de las actividades extraescolares. Hoy en día existe un programa que permite abrir los patios de tres escuelas cinco días al año durante cuatro horas, contratando para ello un servicio de vigilancia.

Eibarko parke eskasiari aurre egiteko ez da nahikoa urtean bost egun irekitzea.

Para hacer frente a la escasez de parques de Eibar no es suficiente con abrir cinco

Ikastetxe patioak erabili nahi ditugu herriko haurrek jolasteko gune ireki aproposak izan ditzaten eskola orduetatik kanpo eta, bereziki, larunbat, igande eta jaiegunetan.

días al año. Queremos utilizar los patios de las escuelas para que las niñas y niños de Eibar fuera del horario escolar tengan espacios libres adecuados para jugar y, especialmente, los sábados, domingos y días festivos.

Espazio horien erabilerak sor ditzakeen arazoei konponbidea eman behar zaie. Horretarako, Udalak bere gain hartu behar du ikastetxearen funtzionamendu egokia bermatuko duen erantzunkizuna, segurtasuna eta garbiketa egokia bermatuz.

Hay que dar una respuesta a los problemas que pueden surgir de la utilización de dichos espacios. Para ello, el Ayuntamiento tiene que asumir la responsabilidad para garantizar el adecuado funcionamiento de la escuela, garantizando la seguridad y la limpieza adecuadas.

Gaur egun baino erabilera handiagoa izan dezakete ikastetxeetako jolastokiek, Udalak dagozkion erantzunkizunak hartuz gero. Hori dela eta, Eibarko EAJ-PNV udal taldeak honako mozio hau aurkezten du, eskoletako jolastokiak irekitzeko.

Los patios de las escuelas pueden tener una utilización mayor que la que tienen actualmente si el Ayuntamiento asume las responsabilidades que le corresponden. Por todo ello, el grupo municipal EAJ-PNV de Eibar presenta esta moción relativa a la apertura de los patios de las escuelas.

AKORDIO PROPOSAMENA

PROPUESTA DE ACUERDO:

Eibarko Udal Batzarrak udal ondorengo hau adostu du:

El Pleno Municipal de Eibar acuerda que:

1. Eskoletako jolastokiak irekitzea, eskola orduetatik kanpo.

1. Abrir los patios de las escuelas, fuera del horario escolar.

2. Ikastetxeekin beharrezko neurriak adostea eragozpenak ekiditeko.

2. Consensuar con las escuelas las medidas necesarias para evitar molestias.

Eibarko EAJ-PNV taldeak aureztu duen mozioa bozkatuta, Udal Osoko bilkurak, aho batez, mozioa onartzea erabaki du.

Sometida a votación la precedente moción presentada por el Eibarko EAJ-PNV, el Pleno Municipal por unanimidad, acuerda aprobar dicha moción.

**14. Irabazi taldeak aurkeztu duen mozioa "Mirabaso parke-basorako aurreproiektua"ri buruz.**

**14. Moción presentada por Irabazi relativa a "Anteproyecto para el parque-bosque Mirabaso".**

**Aguirre Unceta andreak** azaldu du bere taldeak finantzatu duela aurreproiektu hau, paisajista baten eta arkitekto baten laguntzarekin. Aurreikusitako loretegi-parkea Udalari duela bi urte emandako finka batean dago; finka bi pertsonak okupatzen dute, haietako batek, magrebtar jatorrikoak, molestiak eragiten dizkie aldameneko finkakoei hondakinak jaurtiz. Hasieran pentsatu zuten lursail hori hiri-ortuak egiteko erabiltzea, baina ezpondaren desnibelak behartu ditu ideia hori baztertzera eta loretegi-parke batez ordeztera, begiratoki txiki bat izango lukeena bide-amaieran. Halaber, proposatzen dute akaziak kentzea espezie inbaditzailea delako eta Alkatetza Ebazpen baten bidez okupatzaileak handik ateratzea. Azkenik, eskerrak eman

La **Sra. Aguirre Unceta** explica que su grupo ha financiado la elaboración de este anteproyecto, que ha corrido a cargo de un paisajista y un arquitecto. El parque jardín planeado se ubicaría en una finca donada hace dos años al Ayuntamiento y que se encuentra ocupado por dos personas, una de las cuales, de origen magrebí, genera molestias a los colindantes lanzando desperdicios. En un principio, optaron por destinar este terreno a huertos urbanos, pero el desnivel del talud les ha obligado a desechar la idea y decantarse por un parque-jardín que culminaría en un pequeño mirador al final del camino. Así mismo, proponen la eliminación de las acacias por su carácter de especie invasora y el desalojo de los ocupantes mediante una Resolución de Alcaldía.

ditu haur-parkea garbitzeagatik, eta esan du beste gune batzuetan ere antzera jokatu beharko litzatekeela.

Para finalizar, agradece la limpieza del parque infantil, aunque aún habría que actuar en algunas zonas más.

**Errasti Bernedo jaunak** kritikatu egin du finka hori okupatzen duten pertsonak beren jatorriagatik bereiztea, eta adierazi du, proiektua sakon ezagutu barik, ideia polita iruditzen zaiela eta begi onez ikusten dituztela planteatutako neurriak: partzela garbitu eta akaziak kentzea, baina batez ere errepide ondoko parkea berreskuratzea, diru kopuru txiki batekin eta gustu apur batez egin litekeena. Mozioa babestuko dute, betiere lehen puntua besteetatik bereizita bozkatuz gero, Eibarren ezin baitira halako espazioak alde batera utzi.

El **Sr. Errasti Bernedo** censura que se distinga a las personas que ocupan esta finca por su origen y expresa que, sin conocer en profundidad el proyecto, les parece una bonita idea y comparten las medidas que plantean: limpieza de la parcela y eliminación de las acacias, pero sobre todo, la recuperación del parque adyacente a la carretera podría llevarse a cabo con una pequeña cantidad de dinero y un mínimo gusto. Apoyarán la moción, siempre y cuando se vote el primer punto por separado de los demás, porque Eibar no puede desaprovechar este tipo de espacios.

**Garate Larrañaga andreak** ez du eztabaidatu nahi ea eukaliptoa espezie inbaditzailea ote den ala ez; izan ere, urte luzez pentsatu izan da pino insignis ere halako espezie bat zela, eta, hala ere, alderdi askotan asko lagundu dio herri honi, eta, zehazki, landa-munduari. Hala ere, bere taldea ados dago mozioaren filosofiarekin, uste duelako herritarrek gune berde eta zainduak eskatzen dituztela. Bat dator bera ere mozioan aipatzen den lekua kaltetuta dagoela eta Udalak gehiago zaindu beharko lukeela; hain zuzen ere, gogorarazi du duela urte

La **Sra. Garate Larrañaga** no discute si el eucalipto es o no una especie invasora, porque durante muchísimos años se ha pensado que el pino insignis también era una especie de estas características, y, sin embargo, ha ayudado en muchísimos aspectos a este país, léase al entorno del mundo rural. Pero sí manifiesta que su grupo está de acuerdo con la filosofía que encierra la moción, porque cree que la ciudadanía solicita espacios verdes y cuidados. También coincide en que el entorno del que se habla en la moción se encuentra degradado y necesitaría un mayor

batzuk onartu zela mozio bat parke hau berreskuratzeko.

cuidado por parte del Ayuntamiento; de hecho, recuerda que hace unos años se aprobó en otra moción la recuperación de ese parque.

Zentzu horretan, adierazi du joan den astean egiaztatu duela udal zerbitzuak lanean ari direla inguru horretan sasiak garbitzen, baina parkearen itxurazko konponketa bat baino ez dela; bere taldeak eskertzen du, baina ez zaio nahikoa iruditzen, leku hau serioago hartu beharko bailitzateke eta baita hobetu ere, mozioan proposatzen den halako proiektu baten bidez. Azken finean, berreskuratu nahi den gunea Udalarena da —Irabazi udal taldearen bozeramalearen bidez jakin dute hori—; izan ere, urte pila bat daramatza hirugarrenen eskuetan, oiloek hanka egiten dute errepidera eta arriskua sortu, eta, oro har, okupatzen dutenek gaizki zaintzen dute.

En este sentido, afirma que la semana pasada ha podido constatar que los servicios municipales están actuando en la zona realizando tareas de desbroce; aparente arreglo del parque que su grupo agradece pero que no considera suficiente, ya que se debería tomar más en serio este lugar y mejorarlo mediante un proyecto como el que propone la moción. Se trata, en definitiva, de recuperar un espacio del que han tenido conocimiento a través de la portavoz del grupo municipal Irabazi que se trata de una propiedad municipal, porque es cierto que lleva muchísimos años en manos de terceros, con gallinas que se escapan a la carretera, con el peligro que ello conlleva, y mal cuidado en general por las personas que lo ocupan.

Azken iruzkin gisa esaten du egokiago ikusten duela parkearen izena hango toponimoren bat izatea, baina horrek ez du eragozten Eibarko EAJ-PNV udal taldeak mozioa babestea.

Como comentario final, considera más adecuado que la denominación del parque se correspondiera con un topónimo del lugar, aunque ello no impide que el grupo municipal Eibarko EAJ-PNV apoye la moción.

**Iraola Iriondo jaunak** adierazi du lursail horren egoera aztertu dela Ingurumen Batzorde Aholkularian eta dohaintza iazko lehen hiruhilekoan gauzatu zela. Aldez aurretik, okupatuta

El **Sr. Iraola Iriondo** reconoce que la situación de este terreno ya se ha tratado en la Comisión Asesora de Medio Ambiente y su donación se materializó en el primer trimestre del pasado año.

zegoela egiaztatu zen eta baloratu egin zen ingurumen-interesik ba ote zuen herriarentzat, baina egia da orain arte ez zegoela proiektu zehatzik.

Previamente, se constató la ocupación y se valoró el interés medioambiental que presenta para el municipio, aunque, bien es cierto que hasta ahora no existía un proyecto concreto.

Mozioaren xedapen-atalari dagokionez, esan du ez dagoela inongo eragozpenik okupatzaileak kanporatzeko eta akaziak kentzeko. 4 eta 5 puntuak Ingurumen sailak egiten dituen ekintzen barruan sar litezke, esaterako, Eibar inguruneko ondare naturalaren azterketa, laster aurkeztuko dena, bai eta lursaila kudeatzen hasi orduko egin daitezkeen zabalkunde-ekintzak.

En lo que a la parte dispositiva de la moción se refiere, no existe inconveniente alguno en llevar a cabo el desalojo y la eliminación de las acacias. Los puntos 4 y 5 podrían enmarcarse en acciones que el Departamento de Medio Ambiente viene ejecutando, como es el caso del estudio del patrimonio natural del entorno de Eibar que se presentará próximamente, así como las acciones divulgativas que se puedan llevar a cabo una vez que se comience con la gestión del terreno.

**Aguirre Unceta andreak** zehaztu du gune horretan ez dagoela eukaliptorik baizik eta akaziak, eta, hain zuzen, bere taldea saiatzen ari dela espezie hori berriz ere ez sartzen, oso erraz ugaltzen delako. Bestalde, barkamena eskatu du okupatzaile baten jatorria aipatzeagatik, baina pertsona horrekiko egoera gero eta okerragoa da eta beharrezkoa da handik ateratzea, egitasmo hau lasaitasunez egin ahal izateko.

La **Sra. Aguirre Unceta** puntualiza que en esa zona no existe eucaliptus sino acacia, y, de hecho, su grupo está intentando que no se reforeste con esa especie arbórea de fácil reproducción. Por otro lado, se disculpa por su referencia al origen de uno de los ocupantes, aunque es cierto que la situación con esta persona se está haciendo insostenible y es necesario proceder al desalojo con el fin de poder desarrollar este proyecto con tranquilidad.

Bestalde, ondo ikusten du 1 puntua bozkatzea besteetatik aparte.

En otro orden de cosas, consiente en que se vote el punto 1 al margen de los demás.

**MOZIOA**

"MIRABASO" BASO-PARKEAREN AURREPROIEKTUA

Maria Jesus Aguirre Unceta andreak, Eibarko Irabazi taldearen bozeramaleak, “Mirabaso” baso-parkearen aurreproiektuari buruzko proposamen hau aurkezten du hurrengo ohiko Bilkuran eztabaidatu dadin eta, hala badagokio, onartua izan dadin.

AURREKARIAK ETA ARRAZOIAK

Herritarrak gero eta kezkatuago daude ingurune osasungarri batean bizi nahi dutelako; gure konpromisoa eta Udalbatza honen obligazioa da herri bat eskaintzea, non, Eibarko paisaiaren markoan, arbolak kultura sustraitzean eta bizi-baldintzak hobetzen lagunduko duen, bi faktore horiek erabakigarriak baitira herritarren bizi-kalitatean. Horren harira, ezinbestekoak dira bai berdeguneak bai zuhaitzak; izan ere, naturarekiko harremana ahalbidetzen dute, osasunaren hobekuntza, airearen filtrazioa, udako itzala, haizearen abiaduraren murrizketa, lurzoruaren sostengua eta aberastasuna, edertasuna eta ingurumen-heziketa, eta, besteak beste, konbibentzia-espazioak

**MOCIÓN**

ANTEPROYECTO PARA EL PARQUE-BOSQUE “MIRABASO”

María Jesús Aguirre Unceta, Portavoz de Irabazi Eibar, presenta esta proposición para su debate en el próximo Pleno Ordinario y, si procede, para su aprobación, relativa a “Anteproyecto para el parque-bosque Mirabaso”.

ANTECEDENTES Y MOTIVOS

Es cada vez mayor la preocupación de la ciudadanía por vivir en un entorno saludable y es nuestro compromiso y la obligación de esta corporación procurar una ciudad donde el árbol contribuya al enraizamiento de la cultura y a la mejora de las condiciones de vida en el marco paisajístico de Eibar, factores determinantes ambos de la calidad de vida ciudadana. En este sentido son indispensables tanto las zonas verdes como el arbolado, porque procuran el cotidiano contacto con la naturaleza, la mejora de la salud, la filtración del aire, la búsqueda de sombra en verano, la reducción de la velocidad del viento, la sujeción y enriquecimiento del suelo, la

markatuz, urtaro-aldaketak edo denboraren iragaitea.

belleza y la educación ambiental, indicando, entre otros, los espacios de relación y convivencia, los cambios de estación o el paso del tiempo.

Zuhaitzak egoera zaurgarrian daude, espezie inbaditzaileen (akaziak eta eukaliptoak) erasoa dela-eta, eta baita lehorteen, ekaitzen eta higaduraren eragina dela eta. Horregatik, zainketa eta arreta gehiago behar dute, bereziki udalaren aldetik. Azken urteotan, arbola asko galdu dira ur faltagatik edota jarraipen egokia ez egiteagatik, pinuak bota eta bota ari dira —"banda marroiaren" eraginez—, eta plangintza oker bat egon da hainbat lekutan (eukaliptoa edo akazia bezalako espezieak); gertakari horien guztien ondorioz sortutako eztabaidak erakusten du zuhaitzen babesa arautu eta planifikatzeko beharra dagoela landa-araudi orokorraz harago, zeina arlo honetan ez den nahikoa.

Los árboles están en situación vulnerable ante el acecho de las especies invasoras como las acacias y eucaliptos, además de las sequias, las tormentas y la erosión. Es por lo que necesitan más cuidados y atención, especialmente municipal. En los últimos años, la muerte de árboles por falta de agua y/o un seguimiento adecuado, las talas indiscriminadas de pinos – a consecuencia de la “banda marrón”- , o una planificación errónea en su repoblación (especies como eucalipto o acacia), suscitan polémicas que han puesto de manifiesto la necesidad de acometer la regulación y planificación de la protección del arbolado, más allá de la normativa general rural, que resulta insuficiente y poco actualizada en esta materia.

Horri gehitu behar zaizkio pertsona batzuek haien aurka egiten dituzten ekintza bandalikoak, dudarik gabe, arbolekiko sentsibilitate eta errespetu faltak eraginda. Jardunbide txar horiei aurre egiteko arbolen balioak hedatu behar dira, herriari onura eta edertasuna dakarzkiote-eta. Bai basoak bai parkeak eta berdeguneak laguntza paregabea dira gure osasun fisiko eta mentalarentzat.

A esto añadimos los actos incívicos que algunas personas ejercen sobre ellos, fruto, sin duda, de la falta de sensibilidad y respeto hacia el arbolado. Estas malas prácticas, por otra parte, deben ser tratadas mediante la difusión de los valores que el arbolado que rodea a la ciudad, beneficiándola y embelleciéndola. Tanto los bosques como los parques y zonas verdes representan una ayuda incomparable para nuestra salud, física y mental.

Landa- edo hiri-arboladiari eman behar diogun tratamendua erregulatzeko araudiak betetzen du, paper gainean, zaintza- eta mantentze-espektatibak, baina ikusten ari gara, behin eta berriz, gure ondare berdea desagertuz doala eta basoei ez zaiela batere arretarik jartzen.

La normativa que regula de alguna forma el tratamiento que debemos dar al arbolado rural o urbano, cumple sobre el papel, las expectativas sobre cuidado y mantenimiento, pero constatamos, una y otra vez, que nuestro patrimonio verde va desapareciendo y se da una dejación irresponsable de atención a la masa forestal.

Horregatik guztiagatik, Irabazik Aurreproiektu bat aurkeztuko du, Eibarri herritik gertu dagoen baso zaindu bat emateko. Lursaila dohaintza bat da, Udalari eman zitzaiona duela bi urte; Milaflores eta Arratebide artean dago, eta hemendik aurre MIRABASAO deituko diogu. Nahi duguna da leku hori basorako lotune bat izatea eibartar guztientzat. Une honetan espazio horretan txabola batzuk, animaliak eta ortuak daude.

Por todo ello, Irabazi va a presentar un Anteproyecto para dotar a Eibar de un bosque forestal cuidado y cercano al centro de la ciudad y de la población. Se trata de la finca entregada como donación al Ayuntamiento hace apenas dos años, entre Milaflores y la carretera de Arrate, a la que desde ahora vamos a llamarla MIRABASO y que queremos transformar en un espacio de conexión al bosque para las eibarresas y eibarreses. En este momento ese espacio está ocupado por unas chabolas, animales y huertos.

Halaber, finkaren beheko aldea berreskuratu nahi dugu, bere garaian haur-parke bat izan zena —orain erabat abandonatuta dago—, eta behar diren konponketak egin denon gozagarri izateko. Espazio hori, gainera, sarrerako gunea izango litzateke basoaren ibilbidea hasteko, eta herritarrei atseden eta konbibentziarako leku bat eskainiko lieke.

Queremos también recuperar la parte baja de la finca, que en su día fue un parque infantil (y que ahora está totalmente abandonada), realizando las labores necesarias para disfrute de todos. Este espacio sería, también, el punto de entrada para iniciar el recorrido del bosque, además de ofrecer un área de descanso y convivencia para los ciudadanos.

Partzelaren baso-kategoria ulertuta, uste dugu potentzialtasun handia duela, herria

Entendiendo la categoría forestal de la parcela, reconocemos que tiene una gran potencialidad para completar ese objetivo

bisitatzen dutenei Naturarekiko lotura izatearen helburua betetzeko.

de conexión con la Naturaleza que queremos ofrecer a las personas que visitan la ciudad de Eibar.

Interbentzio arin eta merke batzuk eginez ziur gaude lortu dezakegula espazio hori gure herritarrentzat izatea. Nolanahi ere, bukatzen ari gara Portalean hurrengo maiatzaren 2an aurkeztuko ditugun lanak, eta Aurreproiektu honen kopia bana emango diegu Udalbatza honetako alderdi politikoei, ulertuta halako proiektu bat denon ilusioarekin eta konplizitatearekin bakarrik eraman daitekeela aurrera.

Con intervenciones ligeras y económicas estamos convencidas de que podemos conseguir ese espacio para nuestra ciudadanía. En cualquier caso, estamos culminando los trabajos que presentaremos públicamente en Portalea el 2 de mayo próximo y haremos llegar copia de este Anteproyecto a cada uno de los grupos políticos de esta Corporación, asumiendo que un proyecto así sólo puede hacerse realidad desde la ilusión transversal y la complicidad de todos y todas.

Gure alderdi politikoak bere gain hartuko du Aurreproiektu honen kostu ekonomikoa lehen fasean, nahiz eta behin betiko exekuzioa beste aurrekontu batzuen kargu izan beharko den.

Nuestro grupo político va a asumir el coste económico de este Anteproyecto en su primera fase, aunque la ejecución definitiva tendrá que correr a cargo de presupuestos posteriores.

Horregatik guztiagatik, aurkezten dugu honako

Por todo ello presentamos la siguiente

MOZIOA

MOCIÓN

1.- Udalbatzak Gobernu-taldeari eskatzen dio bidezkoak diren eginbideak egiteko finkaren jabe ez diren okupatzaileak berehala handik ateratzeko —jakinda haietako batek kalte handiak eragin

1.- El Pleno del Ayuntamiento solicita a la Junta de Gobierno que se lleve a cabo por los cauces pertinentes el desalojo urgente de los ocupantes ajenos a la propiedad de la finca,- sabiendo que una de ellas ha

dituela—, eta, hala, finka osoa eskuragarri izateko.

causado daños considerables- y poder así tener la disponibilidad de toda la finca.

2.- Gobernu-taldeari eskatzea akazia (robiniak) guztiak kentzeko baimena eman dezala. Hiru orban handi daude horizontalki zabaldu eta azalera inbaditzen ari direnak bertako espezie autoktonoen birsortzea zailduz, eta haien desagertzea eraginez; izan ere, orban horiekin batera badira haritzak, lizarrak, gorostiak, urkiak, astigarrak, sahatsak, hurritzak… berez eratu direnak, eta baso natural bat sortu dutenak, hazi eta zabaldu beharra duena.

2.- Solicitar a la Junta de Gobierno que permita la eliminación de todas las acacias (*robinias*): existen tres grandes manchas que se extienden horizontalmente comenzando a invadir la superficie ocupada por este regenerado natural autóctono que dificultan el paso y entorpecen el rebrote de especies autóctonas, colaborando en la tarea de su desaparición, ya que junto con ellas existen robles, fresnos, acebos, abedules, arces, sauces, avellanos…que han surgido espontáneamente, creando así un bosque natural que necesita crecer y expandirse.

3.- Esku-hartzea haur-parkea izan zen partzelaren beheko aldean eta baita errepide azpiko bi azalera handietan, garbiketa-lanak eginez, banku berriak jarriz eta haur-jolasak berriztuz, espazio hori herritar guztiek balia dezaten.

3.- Actuar decididamente en el espacio inferior de la parcela que fue parque infantil y también en las dos grandes superficies debajo de la carretera en limpieza, reposición de los bancos y juegos infantiles para disfrute de la ciudadanía.

4.- Eta, batez ere, arbola-ondarearen eta haren babesaren defentsa balioan jartzea, zabalkundea eginez eibartarren artean eta baita kanpotarren artean ere, argitalpenen bidez, bisita gidatuak eginez eta partzela horretako espezieak Eibarko arbolen

4.- Y, sobre todo, poner en valor y colaborar en la defensa del patrimonio arbóreo y su protección, dándole difusión mediante publicaciones, visitas guiadas e inclusión de las especies de esta parcela entre los árboles de la ciudad de Eibar

barruan sartuz; hala, tresna turistiko berri bat eta enplegu berdea garatu liteke.

ante sus habitantes y los que nos visitan, desarrollando una nueva herramienta turística y posible empleo verde.

5.- Herritarrei informazioa ematea Udalaren webgunean herriko arbolei eragiten dieten esku-hartzeei buruz, hala nola arbolak bota edo ordeztea, edo inausketak eta birlandaketa esanguratsuak egitea. Halako kasuetan, komeni da herritarrei jakinaraztea aldez aurretik zer premiak edo onura kolektibok eragiten dituzten ekintza horiek, zeina baita orain proposatzen duguna.

5.- Mantener informada a la ciudadanía sobre las diversas actuaciones que afecten al arbolado de la ciudad en la página web del Ayuntamiento, tales como la supresión o sustitución de árboles, podas y trasplantes de relevancia significativa. En estos casos dar a conocer a la población con anterioridad a la realización de los trabajos, las razones de necesidad o beneficio colectivo que promueven tales acciones, como la que ahora solicitamos llevar a cabo.

Lehenik, mozioaren lehenengo puntua bozkatu da. Aldeko 14 boto (PSE-EE, Eibarko EAJ-PNV eta Irabazi), eta lau abstentziorekin (Euskal Herria Bildu); Udalbatzak lehenengo puntua onartzea erabaki du.

Sometido a votación en primer lugar, el punto primero de la moción, el Pleno de la Corporación, con dieciséis votos a favor (PSE-EE, Eibarko EAJ-PNV e Irabazi), y cuatro abstenciones (Euskal Herria Bildu), acordó aprobar el punto primero.

Bigarrenik, mozioaren 2., 3., 4. eta 5. puntuak bozkatu dira. Osoko Bilkurak, aho batez, aipatutako puntuak onartzea erabaki du.

Sometidos a votación en segundo lugar, los puntos 2º, 3º, 4º y 5º de la moción, el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acordó aprobarlos.

**GAI-ZERRENDATIK KANPO**

Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, eta urgentziazko aitorpena egin ondoren, aho batez berretsia, honako gai hau aztertu da:

**IRIZPENA**

**A. Isabel Salud andrearen bateragarritasuna.**

2019ko martxoaren 22an, Isabel Salud Areste andreak (NAN 38495772M) idatzia aurkeztu zuen bateragarritasuna eskatuz esparru pribatuan lan egiteko.

Egin nahi duen jarduera zera dela: pertsonal administratibo gisa jardun politikaren esparruan, apirilaren 29tik aurrera.

**FUERA DEL ORDEN DEL DÍA**

De acuerdo con lo previsto en el artículo 82.3 en relación con el artículo 138 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales y previa declaración de urgencia ratificada por unanimidad, se pasa a tratar el siguientes asunto:

**DICTAMEN**

**A. Compatibilidad de Isabel Salud.**

Con fecha 22 de marzo de 2019, Isabel Salud Areste con DNI 38495772M, presenta escrito solicitando se le conceda la compatibilidad para trabajar en el ámbito privada.

Que la actividad que pretende ejercer es como personal administrativo en el ámbito de la política desde el 29 de abril.

Jarduera hori ez dago zuzenean lotuta ez Eibarko Udalarekin ez lanean zegoen Sailarekin ere (Obra saila).

Que dicha actividad no se relaciona directamente con el Ayuntamiento de Eibar ni con el Departamento donde estaba destinada (Departamento de Obras).

Herri Administrazioetan lanean diharduten langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 11tik 16ra bitarteko artikuluek diotenaren arabera:

De acuerdo con los artículos 11 al 16 de la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de incompatibilidades del personal al servicio de las Administraciones Públicas:

- Lege horren aplikazio-esparru barruan dauden langileek, ez beraiek eta ezta ordezkapen bidez ere, ezin dute jardun lanean jarduera pribatuetan -izaera profesionalekoak barne- beraien kontura egindako lanetan edo lanean dauden Sailean, Erakundean edo Entitatean egiten duten lanarekin lotura zuzena duten Entitateen zerbitzurako lanetan edo horien menpekoetan.
- Debeku horretatik kanpo geratzen dira, legez aitortutako eskubide batez baliatuta, interesatuek beraientzat egiten dituzten jarduera partikularrak.

- El personal comprendido en su ámbito de aplicación no podrá ejercer, por sí o mediante sustitución, actividades privadas, incluidas las de carácter profesional, sean por cuenta propia o bajo la dependencia o al servicio de Entidades o particulares que se relacionen directamente con las que desarrolle el Departamento, Organismo o Entidad donde estuviera destinado.
- Se exceptúan de dicha prohibición las actividades particulares que, en ejercicio de un derecho legalmente reconocido, realicen para sí los directamente interesados.

- Edozein kasutan ere, Lege honen aplikazio-esparru barruan dauden langileek ezingo dituzte ondoko jarduera hauek egin:

a. Jarduera pribatuetan lanean jardutea, izaera profesionaleko lanak barne, beraien kontura edo Entitateen edo partikularren menpe edo haien zerbitzura, esku hartzen ari den gaietan, azken urte bi hauetan esku hartu izan duenetan edo duen lanpostu publikoagatik esku hartu behar izango duenetan. Bateraezintasun honetan, bereziki, lanpostu publikoan jarduterakoan derrigorrez arreta eskaini behar zaien pertsonei eskainitako jarduera profesionalak daude sartuta.

b. Enpresa edo entitate pribatuetako Administrazio Kontseiluetan edo zuzendaritza-organoetako kide izatea, baldin eta horien jarduera, bateraezintasunaren eraginpean dagoen langileak bere zerbitzuak eskaintzen dituen Sailak, Erakundeak edo Entitateak kudeatzen dituenekin zuzenean lotutakoa bada.

c. Langileak berak edo bere izenean diharduen beste norbaitek era guztietako karguak edukitzea Enpresa edo Sozietate emakidadunetan, obra-, zerbitzu- edo hornidura-kontratadunetan, monopolioen errentari edo administratzaileetan, sektore

- En todo caso, el personal comprendido en el ámbito de aplicación de esta Ley no podrá ejercer las actividades siguientes:

a. El desempeño de actividades privadas, incluidas las de carácter profesional, sea por cuenta propia o bajo la dependencia o al servicio de Entidades o particulares, en los asuntos en que esté interviniendo, haya intervenido en los dos últimos años o tenga que intervenir por razón del puesto público. Se incluyen en especial en esta incompatibilidad las actividades profesionales prestadas a personas a quienes se esté obligado a atender en el desempeño del puesto público.

b. La pertenencia a Consejos de Administración u órganos rectores de Empresas o Entidades privadas, siempre que la actividad de las mismas esté directamente relacionada con las que gestione el Departamento, Organismo o Entidad en que preste sus servicios el personal afectado.

c. El desempeño, por sí o persona interpuesta, de cargos de todo orden en Empresas o Sociedades concesionarias, contratistas de obras, servicios o suministros, arrendatarias o administradoras de monopolios, o con

publikoaren partizipazioa edo abala dutenetan, haien eraketa juridikoa zein delarik ere.

participación o aval del sector público, cualquiera que sea la configuración jurídica de aquéllas.

d. Aurreko paragrafo horretan aipatutako Enpresen edo Sozietateen kapitalean 100eko 10etik gorako partizipazioa izatea.

d. La participación superior al 10 por 100 en el capital de las Empresas o Sociedades a que se refiere el párrafo anterior.

- Bateragarritasuna aitortu edo bateraezintasun adieraziko duen ebazpen arrazoitua -hilabete biko epean emango dena- udal osoko bilkurari dagokio ematea.
- Lege honek aipatzen duen pertsonalak ezingo du argudiatu langile publikoa denik eta ez du izango horretaz baliatzerik merkataritza-, industria- edo lanbide-jarduerarik egiteko.
- Funtzionarioei, behin-behineko langileei eta lan-kontratukoei ezingo zaie bateragarritasuna baimendu edo aitortu, baldin eta jaso ditzaketen ordainsari osagarriekin bateraezintasun-faktorea jasota badago tarifaz eta zuzendaritzakoei ordaindutakoarekiko, goi-mailako zuzendaritzako izaera berezia duen lan-harremanari lotutako langileak ere barnean direla.

- La resolución motivada reconociendo la compatibilidad o declarando la incompatibilidad, que se dictará en el plazo de dos meses, corresponde al Pleno.
- El personal a que se refiere esta Ley no podrá invocar o hacer uso de su condición pública para el ejercicio de actividad mercantil, industrial o profesional.
- No podrá autorizarse o reconocerse compatibilidad al personal funcionario, al personal eventual y al personal laboral cuando las retribuciones complementarias que tengan derecho a percibir incluyan el factor de incompatibilidad al retribuido por arancel y al personal directivo, incluido el sujeto a la relación laboral de carácter especial de alta dirección.

Isabel Salud andreak eskaeran azaldu duenez, bere jarduera pribatuak ez du erlazio zuzenik administrazioan betetzen duen lanpostuarekin.

Tal y como expone Isabel Salud Areste en el escrito presentado la actividad privada que desempeñara no se relaciona directamente con el puesto que ocupa en la administración.

Gaur egun Udalean duen lanpostuan ez du bere baitan bateraezintasun-faktorea duen ordainsariririk jasotzen.

En el puesto de trabajo que desempeña en el Ayuntamiento no percibe retribuciones que incluyen el factor de incompatibilidad.

Kontuan hartuta 2019ko apirilaren 15eko Langileria sailaren Lan Batzordearen aldeko irizpena.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Trabajo de Personal, de 15 de abril de 2019.

Osoko Bilkurak, gehiengoz, aldeko hamalau botoren gehiengoarekin (PSE-EE eta Euskal Herria Bildu), eta sei abstentziorekin (Eibarko EAJ-PNV eta Irabazi), ondokoa erabaki du:

El Pleno de la Corporación, por mayoría de catorce votos a favor (PSE-EE y Euskal Herria Bildu) y seis abstenciones (Eibarko EAJ-PNV e Irabazi), adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

LEHENA.- Isabel Salud Aresté andreari jarduera pribatuarekin bateragarritasuna ematea 2019ko apirilaren 29tik aurrera Bateraezintasunei buruzko 53/1984 Legeak ezarritako eran.

PRIMERO.- Se le conceda compatibilidad con actividad privada a Isabel Salud Areste a partir del 29 de abril de 2019 en los términos que establece la ley 53/1984 de Incompatibilidades.

BIGARRENA.- Urtero adierazi behar dio Pertsonal Zuzendaritzari bere lanpostua jarduera pribatu batekin bateratzen ari

SEGUNDO.- Que anualmente comunique a la Dirección de Personal si sigue compatibilizando su puesto con una

den, bateragarritasuna indargabetzeko edo ez.

actividad privada, para la revocación o no de la compatibilidad.

HIRUGARRENA.- Azaldu den Bateraezintasun Legearen arabera hauxe ekartzen zaio gogora: jarduera pribatuan aritzeko ezingo duela erabil bere funtzionario izate hori, eta jarduera aldatuz gero, jarduera pribatuaren aldaketa hori jakinarazi egin behar duela bateragarritasunari buruzko balorazioa egin ahal izateko.

TERCERO.-De acuerdo con la Ley de Incompatibilidades arriba expuesta, recordarle que no puede hacer uso de su condición de funcionario para el ejercicio de la actividad privada y si modifica su actividad, debe notificar el cambio de actividad privada para la valoración de compatibilidad de la misma.

**15. GALDERAK ETA ERREGUAK.**

**15. Ruegos y preguntas.**

- **Errasti Bernedo jaunak** azaldu du bere taldea eraikin publikoetako garbiketa-langileekin bildu dela, arazoak sortu direlako “Brocoli, SL” zerbitzuaren enpresa adjudikaziodunarekin kontratu-adjudikazioaren hasieratik, 2018ko urtarriletik: gaizki ordaindutako nominak, langileen pentsio-planen kuotak beren helmugara ez iristea edo beste jokaera ez oso etiko batzuk, hala nola bajak SIFUko langileekin betetzea, kostuak txikiagoak direlako. Hitz batean, enpresak dirua zor die langile horiei, eta Udalak ez badu

- El **Sr. Errasti Bernedo** expone que su grupo se ha reunido con las trabajadoras de la limpieza de edificios públicos ya que han surgido problemas con la empresa adjudicataria del servicio “Brocoli, S.L.” desde el comienzo de la adjudicación del contrato desde enero de 2018: nóminas mal abonadas, cuotas del plan de pensiones de las trabajadoras que misteriosamente no llegan a su destino u otras prácticas poco éticas, como cubrir bajas con trabajadoras de Sifu, la otra parte de la empresa, porque conlleva menos costes. En definitiva, la empresa debe

soluziorik jartzen, enpresak haren kontura aberasten jarraituko du.

dinero a estas trabajadoras y, mientras el Ayuntamiento no aporte una solución, la empresa continuará enriqueciéndose a su costa.

Bere iritziz, kasu hau agintaldian zehar aztertutako beste batzuen antzekoa da, esaterako, etxeko laguntzako langileen egoera —azkenean lortu zen konpontzea—, edo Ego-Gaineko egoitzarena, egun mobilizazioak egiten ari direnak. Laburbilduz, gatazka horiek guztiek patroi berbera dute: lan-baldintza prekarioak dituzten emakumeak, eta, zentzu horretan, esan du, kontratu-agirietan sartutako klausulak gorabehera, ez bada haien jarraipena egiten, ez dutela inolako baliorik.

En su opinión, se trata de un nuevo caso similar a otros tratados a lo largo del mandato, tales como la situación de las trabajadoras de ayuda a domicilio, que finalmente se consiguió enderezar, o las de la residencia Ego-Gain, actualmente movilizándose. En resumen, todos estos conflictos presentan el mismo patrón de mujeres con condiciones laborales precarias y en este sentido, afirma que, independientemente de las cláusulas que se introduzcan en los pliegos del contrato, si no se realiza un seguimiento de su cumplimiento, no tienen ningún valor.

Hori guztia kontuan hartuta, galdetu du ea gobernu-taldeak lan-gatazka honen soluziorik aurkitu duen, eta zer urrats eman behar diren.

Teniendo todo esto en cuenta, pregunta si el equipo de gobierno ha encontrado una solución para este conflicto laboral y cuáles son los pasos que se van a dar.

**Alkate-Udalburu jaunak** jakinarazi du bi aldiz bildu dela langileekin eta Kontratazio teknikariarekin, eta zehaztu du gatazka honetan bi alderdi bereiztu behar direla: bata da enpresak langileekin duen harremana eta bestea kontratuko klausulak betearaztea, udal eskumena dena.

El **Sr. Alcalde-Presidente** informa que se ha reunido en dos ocasiones con las trabajadoras y el Técnico de Contratación y precisa que en este conflicto hay que distinguir dos aspectos: uno sería la relación de la empresa con las trabajadoras y otra es vigilar por el cumplimiento de las cláusulas del contrato, competencia municipal.

Adierazi duenez, badirudi enpresak ez dituela sartu pentsio-planari dagozkion kuotak, nahiz eta kopuru horiek nominetan atxiki. Hori ikusita, burofax bat bidali zaio enpresari hamar lanegunetan justifika

Indica que parece ser que la empresa no está ingresando las cuotas correspondientes al plan de pensiones, a pesar de que estas cantidades se retienen en las nóminas. A la vista de ello,

dezan ea egoera erreala den; hala balitz, zehapen-espediente bat zabalduko zaio, eta diru-kopuru handia izan liteke. Era berean, beharrezko diren zehapen-espedienteak hasiko dira, baldin eta ez-betetze gehiago antzemanez gero.

se ha enviado un burofax a la empresa para que justifique en el plazo de diez días hábiles si esta situación es real; en el supuesto de que así sea, se iniciará un expediente sancionador que puede llegar a suponer una importante sanción económica. Del mismo modo, se iniciarán los expedientes sancionadores que sean necesarios en el caso de que se constaten más incumplimientos.

Halaber, formula egokiena bilatzen ari da Udalak Brocoli SL sozietateari egin behar dizkion ordainketak atxikitzeko; izan ere, egoeraz kezkatuta daude eta, beraz, epe ertaineko soluzioak bilatzen ari dira, nahiz eta prozedura hasita dagoen.

También se está buscando la fórmula adecuada para proceder a la retención de los pagos que el Ayuntamiento ha de realizar a Brocoli, S.L., ya que se trata de una situación que le preocupa y, por tanto, se están buscando situaciones a medio plazo aunque el procedimiento ya se ha iniciado.

**Errasti Bernedo jauna** konforme dago emandako azalpenekin, baina azpimarratu du hau bezalako kasu batean benetan garrantzia duena dela udal konturatuen agiri arautzaileen klausulak zorrotz betetzen direla gainbegiratzea.

El **Sr. Errasti Bernedo** se muestra conforme con las explicaciones dadas pero destaca que lo realmente importante en un caso como este es el seguimiento estricto del cumplimiento de las cláusulas de los pliegos reguladores de los contratos municipales.

**Aguirre Unceta andreak** bat egiten du erabat langileen eskaerekin.

La **Sra. Aguirre Unceta** se adhiere completamente a las demandas de las trabajadoras.

**Alkate-Udalburu jaunak** adierazi du udalak irmo defendatzen duela kontratuen arau-hauste orok berekin dakarrela ondorio bat, eta, kasu honetan, bat dator Euskal Herria Bildu udal taldearen ordezkariarekin, profil zaurgarrienetako baten aurrean gaudela.

El **Sr. Alcalde-Presidente** traslada el convencimiento de la institución de que todo incumplimiento contractual debe llevar aparejada su consecuencia, ya que, en este caso, coincide con el representante del grupo municipal de Euskal Herria Bildu en que nos

encontramos con uno de los perfiles más vulnerables.

- **Aguirre Unceta andreak** jakin nahi du zein den aurrekontu parte-hartzaileei dagozkien 800.000 euroko partidaren xedea, agintaldia amaitu baino lehen.

- **La Sra. Aguirre Unceta** desearía conocer el destino de los 800.000 euros correspondientes a los presupuestos participativos antes de la finalización del mandato.

**Telleria Echeverria andreak** barkamena eskatu du diru-kopuru horri dagozkion inbertsioak koordinatuko dituen talde eragilea oraindik ez deitzeagatik, baina behar diren hiru txosten teknikoetatik bat egiteke dago.

La **Sra. Telleria Echeverria** se disculpa por no haber convocado aún el grupo motor que ha de coordinar las inversiones correspondientes a esa cantidad, pero de los tres informes técnicos necesarios faltaría uno por emitirse.

**Alkate-Udalburu jaunak** esan du, nahiz eta informazioren bat falta izan, talde eragilea laster bilduko dela.

El **Sr. Alcalde-Presidente** afirma que, independientemente de que falte alguna información, el grupo motor se reunirá próximamente.

- **Penedo Eubieta jaunak** eskerrak eman nahi dizkio Udalbatza osoari, bereziki bere taldekideei, bai eta udal langileei ere, zinegotzi karguan jardun duen denboran jaso duen tratuagatik. Jarraian, azaldu du joan den otsailaren 3an publiko egin zela PSOEren eta PNVren arteko akordioa udal aurrekontuari buruz. Akordioan sartu zen jarraipen-batzorde bat eratuko zela, hiruhilean behin bilduko zena, akordioa betearaztea bermatzeko. Denbora-tarte hori igaro ondoren pentsatzen du PNV-PSOEren arteko akordioaren jarraipen-batzorde hori

- El **Sr. Penedo Eubieta** desea agradecer a toda la Corporación, especialmente a sus compañeras y compañeros de grupo, así como al personal municipal el trato recibido durante el tiempo que ha desempeñado sus funciones como Concejal. A continuación, expone que el pasado 3 de febrero se hizo público el acuerdo PSOE-PNV acerca del presupuesto municipal. En el acuerdo se incluyó la creación de una comisión de seguimiento que se reuniría trimestralmente para garantizar su cumplimiento. Una vez transcurrido

bilduko zela eta, hortaz, bere taldeak jakin nahi du posible den bileraren akordioen berri izatea. Halaber, galdetzen die akordioa sinatu zuten taldeei ea jarraipen-batzorde horrek jarraituko duen hemendik aurrera eta ea udal aurrekontuen inguruko PNV-PSOEren akordioak mantenduko diren. Azkenik, jakin nahi luke zer balorazio egiten duten aipatutako aurrekontu-akordioaren betetze-mailari buruz.

ese período de tiempo entiende que esa comisión de seguimiento del pacto PNV-PSOE se habrá reunido y, por tanto, su grupo desearía saber si es posible tener conocimiento de los acuerdos de dicha reunión. Igualmente, pregunta a los grupos firmantes si esa comisión de seguimiento se mantendrá de aquí en adelante y si se mantendrán los acuerdos PNV-PSOE en relación a los presupuestos municipales. Finalmente, desearía obtener la valoración del cumplimiento del acuerdo presupuestario mencionado.

**Alkate-Udalburu jaunak** erantzun du akordio hori aurrekontu-jardunaldi osorako sinatu zela, maiatzaren 27tik aurrera Udalbatza osatzen duten pertsonak gorabehera, eta, hortaz, sinatzen duten taldeek jarraitzen badute gehiengoa izaten hurrengo toki-hauteskundeen ondoren, akordioak indarrean jarraituko duela. Jarraipen-batzordeko bileren emaitzak direla-eta, argitu du Euskal Herria Bildu udal taldeko ordezkariak aipatutako hiru hilabeteko epea, aurrekontua behin betiko onartu zenetik aurrera hasiko litzatekeela kontatzen, eta epe hori oraindik ez da bete. Nolanahi ere, ez du inolako eragozpenik bilera horien berri emateko, baina Penedo Eubieta jaunaren taldeak jarraipen-batzordean parte hartu nahi badu, aurrekontu-akordioa sinatzea baino ez zeukan.

El **Sr. Alcalde-Presidente** responde que ese acuerdo se firmó para todo el ejercicio presupuestario, independientemente de las personas que conformen la Corporación a partir del 27 de mayo y, por tanto, si los grupos firmantes continúan ostentando la mayoría tras las próximas elecciones locales, el acuerdo seguirá vigente. Respecto al resultado de las reuniones de la comisión de seguimiento, aclara que el plazo de tres meses al que se refiere el representante del grupo municipal de Euskal Herria Bildu comenzaría a contar desde que el presupuesto se aprobó definitivamente, tiempo que aún no se ha cumplido. De todas formas, no tiene inconveniente alguno en informar sobre esas reuniones, aunque si el grupo del Sr. Penedo Eubieta desea formar parte de la

comisión de seguimiento no tenía más que haber firmado el pacto presupuestario.

**Mendicute Rodríguez jaunak** esan du udal talde guztiek egin dezaketela aurrekontuen gaineko fiskalizazio-lana Udal bilkuraren bidez eta Batzordeen bidez, eta harridura adierazi du galdera horrengatik; izan ere, berari inoiz ez zitzaion bururatuko interesatzea Eusko Alkartasunaren, Sorturen eta Alternatibaren arteko harremanez, eta hartu-eman horiek askoz ere sakonagoak dira, koalizio bat eratzeraino. PSE-EE eta EAJ-PNVren arteko kasuan, aurrekontu-akordio bat baino ez da, dokumentu publiko batean gauzatua dagoen; bertan jarraipen-eredu bat jasotzen da eta gainerako udal taldeei haren gauzatzeari buruzko informazioa emateko konpromisoa, gaurko bilkuraren puntu batzuetan egiaztatu den bezala. Jarraitu du esaten aurrekontu horren zati gehiena hurrengo udal gobernuak gauzatu beharko duela, gobernuan edozein dagoela ere, eta, zentzu horretan, nahiko luke Euskal Herria Bildu udal taldeak haren egikaritzean parte hartzen jarraitzea. Azkenik, Euskal Herria Bildu udal taldearen ordezkariak aurrekontu-hitzarmenaren jarraipen-batzordeko bileretako batera joan nahi badu, bera horretarako prest dagoela.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** afirma que todos los grupos municipales pueden ejercer su labor de fiscalización sobre la ejecución presupuestaria a través del Pleno y las diferentes Comisiones y muestra su sorpresa por la pregunta ya que a él nunca se le hubiera ocurrido interesarse por las relaciones existentes entre Eusko Alkartasuna, Sortu y Alternatiba, relaciones que son mucho más profundas hasta el punto de conformar una coalición. En el caso del PSE-EE y EAJ-PNV simplemente se ha llegado a un acuerdo presupuestario plasmado en un documento público, en el que se recoge un modelo de seguimiento, con un compromiso de hacer partícipes de su ejecución a los demás grupos municipales, tal y como se ha podido comprobar en varios puntos de la sesión plenaria de hoy. Continúa su intervención, indicando que ese presupuesto deberá ejecutarlo en su mayor parte el próximo gobierno municipal, independientemente de quien lo lidere y, en este sentido le gustaría que el grupo municipal de Euskal Herria Bildu siga siendo partícipe de su ejecución. Por último, también expresa su disponibilidad a que el representante del grupo municipal de Euskal Herria Bildu asista a

una de las reuniones de la comisión de seguimiento del pacto presupuestario.

**Penedo Eubieta jaunak** erantzun du bere zeregina dela Udalean dauden akordioak baloratzea eta ez alderdi politikoen arteko harremanak. Aurrekontu-hitzarmenaren jarraipenari dagokionez, gogorarazi du bere taldea akordio puntualetara zein aurrekontu-hitzarmenetara heldu dela PSE-EErekin eta PNVrekin beste udal batzuetan, baina Eibarko EAJ-PNV udal taldeak etengabe kritikatzen du gobernu-taldea eta aurrekontu-egikaritzea, eta badirudi ez dituela behar diren tresnak erabiltzen kudeaketa zuzena izan dadin.

El **Sr. Penedo Eubieta** replica que su función es valorar los acuerdos que se producen en el seno del Ayuntamiento y no las relaciones entre partidos políticos. En relación con el seguimiento del pacto presupuestario, recuerda que su grupo ha llegado tanto a acuerdos puntuales como presupuestarios con el PSE-EE y el PNV en otros municipios, pero el grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV critica constantemente al equipo de gobierno y la ejecución presupuestaria cuando parece ser que no utiliza herramientas para que la gestión sea correcta.

**Mendicute Rodríguez jauna** Penedo Eubieta jaunari zuzendu zaio esateko politika ez dela bakarrik galderak egitea, politika erabakiak hartzea ere badela, eta, zentzu horretan, bere taldeak horretan segituko duela, Alkatetzen dagoen alderdi politikoa edozein delarik ere. Beraz, gustatuko litzaioke horixe izatea Euskal Herria Bildu udal taldearen estrategia hurrengo agintaldian.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** se dirige al Sr. Penedo Eubieta para indicarle que política no sólo es formular preguntas, sino tomar decisiones y, en este sentido, su grupo continuará con esa labor al margen del grupo político que detente la Alcaldía. Por tanto, le gustaría que esa sea la estrategia del grupo municipal de Euskal Herria Bildu en el próximo mandato.

Azkenik, **Alkate-Udalburu jaunak** adierazi du hauxe dela agintaldiko azken Ohiko Bilkura eta aitortu du Penedo Eubieta jaunak lortu duela modu originalean amaitzea, eta, halaber, pertsona ontzat duela. Era berean, eskerrak eman dizkie zinegotzi guztiei azken lau urte hauetan

Finalmente, el **Sr. Alcalde-Presidente** indica que éste es el último Pleno Ordinario del mandato y reconoce que el Sr. Penedo Eubieta ha conseguido que finalice de modo original, al tiempo que le considera una buena persona. Del mismo modo, agradece a todas y todos los

Eibarren alde egindako lanagatik herriak pixkanaka hobetzeko helburuz. Maiatzaren 26an, herritarrek erabakiko dute zein izango diren beren ordezkariak, eta eurek herritarrei kale ez egiteko ardura izango dute. Zortea opa die hurrengo Udalbatzaren parte izango ez diren pertsonei.

Concejales el trabajo desarrollado por Eibar a lo largo de estos cuatro años con el objetivo de que la ciudad mejore progresivamente. El próximo 26 de mayo la ciudadanía decidirá quienes serán sus representantes, debiendo asumir la responsabilidad de no defraudar a la ciudadanía. Desea suerte a las personas que no formarán parte de la próxima Corporación.

**Aguirre Unceta andreak** ere eskerrak eman nahi ditu, asko ikasi baitu zinegotzi karguan jardun duen azken hiru urte eta erdi hauetan.

La **Sra. Aguirre Unceta** también da las gracias por lo mucho que ha aprendido en sus tres años y medio como Concejala.

**López de Guereñu Urisabel jaunak ere** eskerrak eman dizkie denei, jasotako tratuagatik eta denbora honetan ikasitakoagatik.

El **Sr. López de Guereñu Urisabel** se suma al agradecimiento general por el trato recibido y lo aprendido en este tiempo.

Eta, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoela, eta gaueko hamarrak hogei gutxi izanik, Iharduneko Alkate-Presidente jaunak amaiera ematen dio Osoko Bilkurari, nik, Idazkari Orokorra modura horren fede ematen dudala.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las veintiún horas cuarenta minutos, el Sr. Alcalde-Presidente en funciones levanta la sesión, de todo lo cual yo, el Secretario General, doy fe.

O.I. / Vº Bº

ALKATE UDALBURUA/

EL ALCALDE-PRESIDENTE,

IDAZKARIAK / EL SECRETARIO

Miguel de los Toyos Nazabal    Juan Agustín Villafranca Bellido